


Jarraian irakurriko duzun dokumentua BBVArekin inbertsio-zerbitzu bat jasotzeko kontratua da. Kontratua, **ordezkaritza bitarteko zorroen kudeaketa diskrezionaleko zerbitzuari dagokio.**

## Zerbitzuaren laburpena

Bankuaren esku ondare jakin bat uzten duzu, erakundeak zure izenean eta kontsultatu gabe, egoki irizten dituen erabakiak har ditzan. Bankuak erabaki horiek bi alderdiek kontratu honetan ezartzen ditugun irizpideei jarraiki hartuko ditu. Jarduera horrengatik, Bankuak komisio bat kobratuko dizu eta aldiaren behin informazioa bidaliko dizu zure inbertsioei eta bere errendimenduari buruz.

Kontratuak sei zati ditu:

1. Alderdi kontratu-hartzaileen identifikazioa.
2. Baldintza orokorrak, non emandako zerbitzuaren funtzionamendu orokorra eta zu eta BBVAren eskubide eta betebeharrak azaltzen diren.
3. Baldintza bereziak, non inbertsio-irizpideak jasotzen diren, baita zure aholkatutako kartera kudeatzeko baimen espezifikoak ere.
4. I Eranskina, non zerbitzuaren komisioak jasotzen diren.
5. II Eranskina, karterako finantza-aktiboei aplikagarri zaizkien balorazio-irizpideei buruzkoa,
6. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko IV. eranskina.

Aurrekoarekin batera, hiztegi bat ere emango zaizu,  ikonoaz markatutako hitzekin, horien azalpen zehatzarekin, ulermena errazteko.

Har ezazu beta eta irakur ezazu arretaz. Egiazta ezazu zuri buruzko informazioa zuzena dela eta kontratu osoaren edukia ulertu duzula, baita kartera osa dezaketen produktuenak ere.

Zalantzarik izanez gero, galde egizu sinatu baino lehen. Gogobetetzen zaituen erantzunik jasotzen ez baduzu, galde ezazu berriro. Ez duzu kontratua sinatu argitu gabeko zalantzarik baduzu edo bertako atalen bat ulertzen ez baduzu. Amaierako sinadurak harekin ados zaudela adieraziko du.

## ALDERDI KONTRATU-HARTZAILEEN IDENTIFIKAZIOA

Alde batetik, zure izen-deiturak edo, egoki bada, izen soziala (aurrerantzean, **"Zu" edo "Titularra"**):

a) Pertsona fisikoak:

IZENA ETA ABIZENAK

IFZ

Nazionalitatea

Helbide Fiskala

Kalea:

Herria:

Probintzia:

PK.:

Tel.:

Posta-helbidea:

Kalea:

Herria:

Probintzia:

PK.:

Tel.:

Bestetik, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A. (aurrerantzean, **"Bankua"** edo **"BBVA"** edo **"gu"**), aholkularitza emateaz arduratuko den erakunde gisa.).

### DATU PERTSONALAK

Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A., IFZ A-48265169, ordezkari gisa \_\_\_\_\_ jauna ordezkari duena, \_\_\_\_\_ Madrilgo Notarioaren aurrean 2021eko urriaren 6ko datarekin eta 5403 protokolo-zenbakiarekin emandako eskrituraren arabera, eta behar bezala inskribatuta dagoena Merkataritza-erregistroan.

HELBIDE SOZIALA Bilbon, San Nikolas Plaza, 4

Bizkaiko Merkataritza Erregistroan izena emana, 2083. liburukian, 1545. liburuan, 3. atalean, 14741. orrian eta Espainiako Bankuko Erakundearen Erregistroan 0182 zenbakiaz, inbertsio-karteren kudeaketa diskrezional eta banakako zerbitzua emateko gaitutako erakundea eta Espainiako Bankuaren gainbegiratzeari atxikia (Alcalá kalea 48, 28014 Madril) eta Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionalarenari (Edison kalea 4, 28006 Madril).

**ORDEZKARITZA BITARTEKO ZORROEN KUDEAKETA DISKREZIONAL  
KONTRATU-TIPOARI LOTUTAKO BALDINTZA OROKORRAK****Zorroaren zk.: 0182-2025-0937-\_\_\_\_\_****Egokitasun kodea: \_\_\_\_\_****1. Zein da kontratuaren xedea?**

1.1. Zerbitzu honi esker, BBVAk, kudeaketa esleitu dion eta 1.4 atalean identifikatzen den erakundearen bidez, zure ondare jakin bat kudea dezake, zure izenean eta zu ordezkatzuz, eta inbertsio-estrategiaren oinarri gisa bezeroen arrisku-profilak eta jasangarritasun-hobespenak ordezkatzun dituzten zorroak hartuko dira. Esleitzen zaizun zorro-eredua zure inbertsore-profilaren eta jasangarritasun-hobespenen arabera zehazten da, zerbitzua eman baino lehen egin zaizun egokitasun-ebaluazioaren arabera.

Une bakoitzean kudeatuko den ondarea hauek osatuko dute (i) kontratu honekin lotutako baloreen kontuan utzitako finantza-tresnak; (ii) kontratu honekin lotutako finantza-kontratuak edo egituratutako gordailuak; (iii) Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IIC) inbertsio-funts nazionalen partaidetzak zure izenean kontratu honen arabera kudeatzailean erregistratuta; (iv) une bakoitzean kontratuari lotutako kontu korrontearen kontuan gordetako dirua eta, (v) aurreko eragiketen ondorioz lortutako etekinak. Aurreko (i), (ii) eta (iii) ataletan zehaztutako aktiboei "tresnak" edo "tresna finantzario" esango zaie.

Kudeatutako zorroari hasieran ekartzen zaizkion eskudirua edo tresnen multzoa, azken kasuan Bankuak adostu aurretik, aldatu ahal izango da erosketen, salmenten, harpidetzen edo diru-itzuleren ondorioz, besteak beste, eta egin daitezkeen amortizazioengatik.

Zorrora egindako edozein eskudiru edo tresna ekarpen berriak, azken kasuan Bankuarekin adostu ondoren, osatuko dute kudeatutako zorroaren ondarea.

Hasierako ekarpenetan eta ondorengoetan, inbertitzeko erabakia hartu ez dugunez, eragiketa horien aurrean ez gara erantzule izango.

Bankuak egindako kudeaketak ezin izango du, aplikagarri den legeriak ezar ditzakeen kasuetan izan ezik, hasieran edo segidako aldietan egin dituzun ekarpenen ondarearen batura gainditu, ezta helburu horretarako lor ditzakezun kredituen/maileguen zenbatekoa ere.

Kontratua solidarioa da, hau da, titular bat baino gehiago daudenean, haren eskubide eta obligazioak titularretako edozeinek eskatu ahal izango ditu, mugarik gabe, titularretako batek. Ondorioz, edozein titularrek, berez,

besteak beste, kontratu honen araberako agindutako egikaritu ahal izango ditu, eta baita informazioa eskatu ere eta, oro har, titulartasunari dagozkion eskubide guztiak erabili ere. Kontratua amaitzeko titular guztien adostasuna beharrezkoa izango da.


1.2. Kontratua sinatu aurretik, zuk sinatutako egokitasun ebaluazioa egin dugu eta haren kopia bat eman dizugu. Ebaluazio horren emaitzaren arabera, profil inbertitzailea esleitu dizugu. Zorroaren kudeaketa profil inbertitzailearen, jasangarritasun-hobespenen eta Baldintza Partikularretan zehaztutako baldintzen arabera egingo da.

Osotzat eta benetakotzat hartuko ditugu egokitasuna ebaluatzeko zuk emandako datu guztiak eta zure erantzukizuna izango da ditu horiek egiazkoak izatea. Horietakoren bat aldatuko balitz, mesedez, idatziz jakinarazi ahal bezain laster.

Tarteka, egokitasun-ebaluazio berri bat egiteko beharrezkoak diren datuak eskatuko dizkizugu, zure arrisku-profilak eta jasangarritasun-hobespenek berak izaten jarraitzen duten erabakitzeko. Datu berriro horiek bidaltzen ez badizkiguzu, azken ebaluazioan emandakoak aldatu ez direla ulertuko dugu, eta beraz, haren emaitzari eutsiko zaio. Era berean, egokitasun-galdetegia edo egokitasun-ebaluazioaren emaitza ematen duen algoritmoa asko aldatzen badugu, egin diren aldaketei buruzko informazio osagarri eska diezazukegu, esleitutako arrisku-profila eta zure jasangarritasun-hobespenak aldatu diren egiaztatzeko, eta beharrezkoa balitz, emandako zerbitzua aldatzeko.

1.3. Zuk zera alda dezakezu:

- (i) zure profil inbertitzailea edo jasangarritasun-hobespenak zehazten dituzten eta egokitasun-ebaluazioan biltzen diren parametroak, eta hala balegokio, aurrekoa ordezkatzeko duen egokitasun-ebaluazio berria egin beharko duzu eta inbertitzailearen profil eta/edo jasangarritasun-hobespen berriak zehaztuko dira sinatzen duzun unean, kontratu honi Eranskin gisa barneratzen denean..
- (ii) Baldintza Bereziak gainerako atalak, baimendutako finantza-tresnak eta kudeaketaren mugapenak barne, Baldintza Berezi berriak sinatuz, edo horiek aldarazten dituen eranskinean.

Kontuan izan inbertsioaren irizpide orokorren aldaketa kontratuan zehar, tresnak kentzea, tresnaren baten kudeaketan murrizketa edo kontratua zehaztutako denbora- mugaegunaren  aurretik bukatzeak eragin kaltegarriak izan ditzakeela zure zorroaren etekinean.

Inbertsio-irizpideak aldatu aurretik martxan zeuden obligazioak bete edo eragiketak egin ahal izango ditugu.

- 1.4 Bankuak jakinarazten dizu, aplikagarri den arautegiarekin bat etorritik, zorro ereduaren kudeaketa BBVA Asset Management, S.A., S.G.I.I.C., Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva izenekoaren esku utzi duela. 14 zenbakiarekin dago inskribatuta CNMVren erregistroan, eta bere helbide soziala calle Azul 4, 28050 Madrid eta IFK A-28597854 dira. Zorroaren kudeaketa diskrezionaleko zerbitzua emateko gaitutako erakundea da (kudeatzailea). Ordezkaritzak ez du inoiz Bankuaren erantzukizuna murrizten, ezta Bankuak bere bezeroekin dituen harremanak eta betebeharrak aldatzen ere.

Bankuak BBVA Asset Management, S.A., S.G.I.I.C.-ri ordainduko dio, zorroaren kudeaketa diskrezionaleko zerbitzua emateagatik, baina horrek ez du inolako kostu gehigarri izango zuretzat.


## **2. Zelan gauzatu daiteke kontratua?**

- 2.1 Kontratua Bankuak zerbitzu honetarako une bakoitzean eskura jar ditzakeen bideen bitartez formalizatu ahal izango duzu.
- 2.2 Kontratua bulegoan formalizatzen bada; zuk eta, kasua balitz, beste titularrek dokumentazioa sinatzen duten datan eta orduan sartuko da indarrean.
- 2.3 Sinadura atzeratua hitzartzen bada, hurrengo 14. atalean aurreikusitakoa beteko da.

## **3. Zein da Bankuaren ordainketa?**

- 3.1. I Eranskinean Bankuak zuek jasoko duen kudeaketa-komisioa jasotzen da, karteren kudeaketa diskrezionaleko zerbitzua emateagatik.

Hirugarrenetatik ez dugu onartuko ordainsaririk, komisiorik edo monetazko edo monetazkoak ez diren onurarik (pizgarriak), zure kontuan egingo ditugun inbertsioen ondorioz eta, jaso gero, ordainduko dizkizugu, monetazkoak ez diren irabazi txikiak izan ezik, zeinak jaso daitezkeen eta, besteak beste, hurrengoak biltzen dituen onurak baitira:

- (i) finantza-tresna bati buruzko informazioa edo dokumentazioa edo inbertsio-zerbitzu bati buruzkoa, izaera generikokoa edo pertsonalizatua, bezero jakin baten baldintzak islatzeko;
- (ii) hirugarrenen material idatziak, igorle edo igorle  posible batek agindutakoak eta ordaindutakoak, dagokion sozietate horrek betes igorpen bat bultzatzen dezan;
- (iii) hitzaldi, mintegi edo bestelako prestakuntza-jardueretan parte hartzea, finantza-tresna edo inbertsio-zerbitzu jakin baten onura eta ezaugarriari buruzkoak,



(iv) balio eskaseko arrazoizko ordezkapen-gastuak, enpresa-bilera bateko dietak adibidez, edo hitzaldi, mintegi edo bestelako prestakuntza-jarduera batekoak;

Diruzkoak ez diren etekin txikiak, jasotzen direnak, emandako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko hartuko dira.


3.2. Komisioak eta Kontratu honetan jasotako gainerako baldintzak aldatu ahal izango ditugu, aurretik, hilabeteko aurrerapenez jakinarazita jakinarazpena jasotzen dugunetik. Aldaketak aplikatzeari aurka egin ahal izango diozu, epe hori amaitu baino lehen jakinarazita. Haren aurka egoteak zuretzat kosturik gabe baliogabetzea eragingo du eta, ondorioz, zerbitzua ematen uztea, aurreragoko 5. Baldintza Orokorrean adierazten diren ondorioekin. Zuretzako aldaketarik mesedegarrienak berehala eta aurrez jakinarazi gabe aplikatu ahal izango dira.

#### **4. Nola funtzionatzen du kontratatutako zerbitzuak?**

4.1. BBVA, eta, hura ordezkatzuz, Kudeatzailea, produktuak aukeratzeaz, inbertsio-erabakiak hartzeaz eta zuretzat eta zure izenean kontratatutako eragiketak burutzeaz eta likidatzeaz arduratuko da. Horretarako, gure sinadurarekin hurrengorako baimentzen gaituzu:

- (i) mota guztietako erosketak-, salmenta-, harpidetza-, lagapen-, uko egite, itzulketa-, intsuldaketa-, truke- edo bihurketa  eragiketak Baldintza Berezieta azaldutako tresna-kategoria guztien gainean, egoki irizten ditugun terminoetan;
- (ii) kontratu honen pean egiten diren aginduak burutzea, egoki denean, negoziazio-zentro batetik kanpo, bermeen ekarpena dakarten eragiketak egitea, besteak beste, zerrendatutako deribatuetako operatibean gertatzen direnak (tresna horiek baimendu badituzu), eta kanbio-tasako arriskua dakarten eragiketak egitea;
- (iii) kontratuak biltzen dituen eragiketen ondorioz dibidenduak  jaso, interesak kobratu eta zergak ordaintzen ditugunean;
- (iv) kudeaketa eskuordetu diguzun ondaretik eratorritako eskubide ekonomiko guztiak baliatzeko;
- (v) aurrez aipatutako eragiketen berezko betebeharrak guztiak betetzea, erakunde jaulkitzaile edo ordaintzaileei informazioa eskatzea barne;
- (vi) Guri eskatu zaigun zorroaren kudeaketarako komeni edo interesatzen zaizkizun hitzarmen eta baldintzen arabera beharrezkoak diren dokumentu guztiak hitzartzea, inbertsio-zerbitzuen enpresen, notario publikoen eta gainerako bitartekarien edo legez baimendutako erakundeen bitartez, eta

(vii) zuk eskatutako zorroaren administraziorako eta kudeaketarako beharrezkoak diren eragiketa eta ekintza guztiak egitea.

Inola ere ezingo dizkiozu Bankuari eskuordetu kudeatutako ondarearen parte diren inbertsioei dagozkien eskubide politikoak  edo boto-eskubideak.

4.2. Zuk ezingo duzu kudeatutako kartera osatzen duten ondareen gainean zuk nahi dituzun eragiketak egin, karterako tresna edota eskudiruak saldu edo intsuldatzea edota tresnen edo eskudiruaren irteera izan ezik. Bankuak kasu horretan inbertitzeko erabakia hartu ez duenez, eragiketa horien aurrean ez gara erantzule izango.

Ez duzu eskubiderik hura formalizatzeko erabilitako edozein kanaletarako aginduari uko egiteko.

Kontuan izan behar duzu zure karterako tresnen salmenta edo intsuldaketa dakarren eragiketaren bat egin nahi baduzu, aurretik jakinarazteko epe batzuk daudela, tresnaren arabera. Horrez gain, 4.2 Baldintza Partikularrean bildutakoaren arabera tresna likidoak ere daude.

Kontuan izan agindu horiekin kudeaketa-estrategia aldarazi dezakezula, eta eragin negatiboa izan dezakeela zure aholkatutako karteraren errendimenduan.

4.3. Zerbitzu honek kontu korrante bat eta balore-kontu bat edukitzea behar dugu. Kontu horiek Baldintza Berezietan zehazten dira eta kontratu honetarako bakarrik erabiliko dira.

Balore-kontuan gordeko dira hasierako ondarea osatzen duten finantza-tresnak, kontratu honen barruan eskuratu edo ekartzen diren finantza-tresnak eta jabetza hori ziurtatzen duten gordailuak edo gainerako egiaztagiriak. Kontratu honetan jasotako inbertsio-funts nazionaletako partaidetzak zure izenean erregistratuko dira horiek kudeatzen dituen sozietatean, eta kontratu honetan ere jaso dira gordailu egituratuak eta finantza-kontratuak dagozkien kontuetan erregistratuko dira.


Kontu korrantean erregistratuko da eskudirua eta kontratuaren ondoriozko eragiketak kontratu eta ordainduko dira, eta Bankuaren alde adostutako kudeaketa-komisioa eta kontratu honetan bildutako gastuak ere.


Edozer arrazoi dela eta (kudeaketa-komisioaren zordunketatik eratorritakoa ere bai), kontu korrantean zorpeko bat gertatuko balitz, berariaz baimena ematen diguzu zure zorroko tresna nahikoak saltzeko, zorpeko hori estaltzeko. IKE bat izanez gero, Bankuak, zure ordezkarietan, kudeatzaileari edo dagokionari dirua itzultzeko edo berriz erosteko eskubidea baliatuko du. Zure kontura izango dira salmentako, dirua




itzultzeko edo berriz erosteko eragiketek sortzen dituzten gastuak.


Bankuak hartuko du, posible denean, kontratu honetan identifikatutako kontuetan zure kudeatutako kartera osatzen duten Tresnen eta eskudiruaren erregistratzeko lana.


4.4. Baldintza Partikularretan baimentzen baduzu, kudeatutako orroarentzat kontratatu, hura aldatu edo baliogabetu (osoa edo haren zati bat) ahal izango dugu finantza-tresna eratorrien  inguruko eragiketak jaulki ditzakegu.

Kontuan izan finantza tresna eratorri horien kontratazioak kontratu espezifiko bat sinatze eska dezakeela eragiketa hasi baino lehen, esate baterako Finantza Eragiketen Esparru Kontratua , Espainiako Banka Elkarteak argitaratua.

Finantza-tresna deribatu horiek idatziz edo telefonoz kontratatu ahal izango dira eta bere terminoak kontrataziotik galdatu ahal izango dira, ezeztatze aukerarik gabe. Bankuak zure izenean eta zure kontura telefonoz kontratatutako eragiketak ondoren idatziz dokumentatuko dira.

4.5. Kontuan izan behar duzu ekainaren 18ko 11/2015 Legean, kreditu-erakundeen eta inbertsio-zerbitzuko enpresen hobekuntza eta ebazpenekoa, aurreikusitako Tresnak sar daitezkeela zure zorroan, hau da, birkapitalizaziorako onar daitezkeen pasiboak eta birkapitalizazio-tresnak . Zerbitzua kontratatu aurretik bidaliko dizugun informazioan, eta Baldintza Partikularren 4.2 atalean ere aurkituko dituzu.

4.6. Hainbat bezeroen merkatuan salerosketa aginduak taldekatzeko modua izango dugu, indarrean den legeria urratu gabe. Horretarako interes-gatazkak  ebazteko irizpideak dauzkagu, baita eragiketak bezeroen artean banatzeko irizpideak ere, jarraian zehaztuko dugun modura.

- Finantza-tresna jakin baterako agindu taldekatuak  jaulkitzen badira, hauxe gerta daiteke:

- (i) agindu osoa ezin gauzatzea. Kasu horretan finantza-tresnak banatuko ditugu kaltetutako bezeroen artean, bezero bakoitzak agindu taldekatan duen bolumenaren arabera.

- (ii) aginduaren Finantza-tresnak prezio desberdinetan erosi edo transmititzea. Kasu horretan kontuan izango ditugu finantza-tresnak esleitzeko orduan, bezero bakoitzari esleitutako zenbakia eta gauzatze-ordena kronologikoa prezio desberdinetan. Hortaz, identifikatzeko zenbaki txikiagoa duen bezeroari dagozkio lehenengo gauzatutako prezioak.

- Irizpide horiek aplikatzeko konpromisoa hartuko dugu. Aldatzen baditugu, aldeztu aurretik jakinaraziko dizugu.


4.7. Baimena ematen diguzu zuk kontratu honen arabera Bankuarekin




dituzun bakoitzean, telefonoz edo komunikazio elektronikoz, elkarrizketa grabatzeko eta, gainera, haren kopia bat eska dezakezu legeak ezartzen duen epean, 5 urteko gehieneko epean, eta 7 urtera arteko epean agintari eskudunak eskatzen duenean, eta baita haien erregistroak eramateko ere.



## **5. Zenbat irauten du eta noiz bukatzen da kontratua**

5.1 Kontratua mugagabea da, baina bai zuk bai zure Bankuak nahi duzuenean eman dezakezue amaitutzat. Aski da amaitutzat eman nahi duenak beste alderdiari idatziz gutxienez hilabeteko aurrerapenez jakinaraztea, komisioak ordaintzen ez badituzu, kapitalak zuritzeari buruzko araudia urratzen baduzu edo merkatuko abusua egiten baduzu salbu, kasu horietan, Bankuak kontratua berehala amaitzeko eskubidea izango du-eta.

Titularren bat ezgaituz  gero, Bankuak kontratua amaituko du ezgaitasunaren jakinarazpena jasotzen dugun egunean.

Kontratua amaitzen bada, eskubidea dugu hura amaitzen den unean likidatzeke geratzen diren eragiketei dagozkien komisioak jasotzeko, eta baita gurekin adostuta dituzun gainerako gastuak ere.

Kontratua lehenago amaitzeak  ez du eraginik izango bidean diren eragiketetan. Eragiketa horien izapidetzea, likidazioa eta baliogabetzea kontratu honetako baldintzetan onartutakoaren arabera jarraituko dira gauzatzen.

**5.2. Inbertsio kolektiboko erakundeak (IIC)  kontratatuz gero, bai eta horiek zorroaren barruan egon bitartean, baimena ematen diozu Bankuari, erakunde horrek kudeatutako akzio edo partaidetza edo funts klonikoen  artean, zure egoera objektibo eta subjektiboekin bat egiten duena esleitzen diezazun, IICaren liburuxkan eta aplikaziozko araudian ezarritakoarekin bat eginez.**

**Halaber, zure zorroan IICrik baduzu zenbait partaidetza edo akzio motarekin edo erakunde berdinek kudeatutako funts klonikorik baduzu, baimena ematen diozu Bankuari dagokizun IIC edo funts klonikoa esleitzen diezazun kontratua azkendu denean.**


5.3. Behin kontratua bukatuta, hamabost eguneko epean zure zorroaren inguruko kudeaketaren berri emango dizugu.

Kontratu honek, berrantolaketa arrazoiengatik, balore-kontua eta kontu korrontea beste bulego batera eramatea eragingo du, eta horrek ez du eraginik izango kontratuen aldaketan. Horretarako, jakinarazpen bat bidaliko dizugu kontuen zenbaki berriak adieraziz, non eskura duzun esku-dirua eta gordailutako baloreak adieraziko diren.






5.4 Kontratu honen amaierak ez dakar berekin kontratatutako egituratutako

gordailuak eta finantza-kontratuak baliogabetzea, ezta II Cetan partaidetzak itzultzea, zeinen saldo eta tresnak eskura izaten jarraituko dituzun; horiek dagozkien kontratuetan aurreikusitako erregimena jarraituko dute.

## 6. Zein informazio jasoko duzu Bankutik?

6.1. Eskubidea duzu euskarri iraunkroan  honako informazioa helaraz diezazugun:

(i) Hilean behin:

- a) Zure kudeatutako tresna kartera osatzen duten kontratatutako tresnen eta eskudiruaren osaera zehaztua; haren balorazioa, tresna bakoitzari buruzko datuak, bere merkatuko balioa eta, halakorik ezean, arrazoizko balioa, eta informazioak jasotzen duen epealdiaren hasierako eta amaierako eskudiruzko saldoa.
- b) kudeatutako karterako aldakuntzak epealdian zehar, kontratu honetako II. Eranskinean jasotako balorazio-irizpideen arabera kalkulatuta; karteraren errendimendua epealdi horretan, karteraren errendimenduaren eta inbertsioaren errendimenduaren adierazlearen edo indizearen  arteko alderaketa; eta dibidenduen, interesen eta zure karterari lotuta jasotako beste hainbat ordainketen guztizko zenbatekoa.
- c) Bankuak, bere taldeko erakundeek edo honen erakundeek kudeatutako inbertsio kolektiboko erakundeek jaulkitako finantza-tresnetan inbertitzea.
- d) Finantza-tresnen harpidetzea edo eskuratzea Bankuak edo bere taldeko Erakunderen batek jaulkipenaren edo salmenta publikoaren  eskaintzaren aseguratzaile  edo jartzaile  gisa badihardugu.
- e) Bankuak edo taldeko erakundeek bere kontura saldutako finantza-tresnak eta zure kudeatutako karterarako eskuratutakoak.
- f) Zure eta Bankuko beste bezeroen artean egindako eragiketak.
- g) Kasu horietako bat egonez gero, baloreen finantzazio-eragiketen xede izan diren tresnen edo funtsen informazioa,  eta baita 2014/65/UE Zuzentarauari eta hura betetzeko neurriei lotutako aktiboak, eta  finantza-bermeko adostasunei lotutakoak ere titularra aldatzen dutenean.
- h) Jabetzari dagokionez hainbat bitxikeriak eragina duten aktiboei buruzko informazio argia.

- i) Finantza-tresnak eta eskudirua gordailututa, administratuta edo erregistratuta dauzkaten erakundeak, bere kasuan kontu globalak zehaztuz (omnibus kontuak).
- j) Karterako tresnei lotuta eskubideak ematen dituzten bestelako sozietate-eragiketei buruzko informazioa.

(ii) Urtean behin:

- a) Zerbitzu honen ondorioz hirugarrenetatik jaso dituzun diruzkoak ez diren irabazi txikiak.
- b) Ordainsariekin eta finantza-tresnekin, emandako zerbitzuekin lotutako kostuen eta astuen inguruan gehitutako informazioa eta baita haiek gauzatzearekin lotutako kostuen informazioa ere.
- c) Horrez gain, zerga aitortpena egiteko behar dituzun datuen inguruko informazioa ere emango dizugu.

Zure jasagarritasun-hobespenak adierazi badituzu, gutxienez urtean behin eta euskarri iraunkor batean, jakinaraziko zaizu zorroa nola egokitzen den egokitasun-ebaluazioan adierazi duzun zure jasagarritasun-hobespenetara. Era berean, jakinaraziko dizugu, hala balegokio, eta euskarri iraunkor batean, finantza-zerbitzuen sektoreko jasagarritasunari buruzko informazioa dibulgateari buruzko 2019ko azaroaren 27ko Europar Batasunaren eta Batzordearen (EB) 2019/2088 Araudiak eta inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020ko ekainaren 18ko Europar Parlamentuaren eta Batzordearen (EB) 2020/852 Araudiak aipatzen den informazioa, baita horien garapen-arauak ere.

6.2. Zorroaren balioa, informazio-epealdi bakoitzaren hasieran baloratzen den moduan jakinaraziko zaizu, %10 jaisten denean eta ondoren %10eko multiploetan, aplikagarri den legeriak ezartzen duen moduan.

6.3. Zorroak finantza-tresna apalankatu eta pasibo kontingenteak dituzten eragiketak dituztenean, tresnen balioak % 10 jaitsiko balira jakinaraziko zaizu eta, ondoren, % 10ko multiploetan aplikazio-araudiak ezartzen duena jarraituz. Informazio hori tresna bat baino gehiagoko dokumentu bakarrean bidali ahal dizugu.

6.4. Hirugarren baten pizgarririk jasotzen badugu, aldizkako informazioan ordainketen edo onuren zenbatekoa zehaztuz itzuliko diogu.

6.5. Egindako transakzio bakoitzaren inguruko informazioa euskarri iraunkorrean jasotzea, idatziz, edo aldizka txosten batean jakinaraztea eskatu ahal izango duzu.

6.6. Horrez gain, informazio gehiago eskatu ahal izango duzu nahi duzunean,

eta hura gauzatzeak gastu bat sortu ahal izango dizu.

6.7. Ados zaude [www.bbva.es](http://www.bbva.es) webgunearen bitartez zure eskura jartzeko interes-gatazkak kudeatzeko politika eta gatazka-politika laburbildua; zeinak gure jarduna zuzentzen duten hartan aurreikusitako kasuetan. Politika horien informazio gehiago eskatu ahal izango duzu.

## **7. Zeintzuk dira zure eskubideak?**

7.1. Eskubidea duzu zerbitzu honi lotutako kontu korrontea edo baloreen kontua eskuratzeko, baina idatziz hiru egun lehenago jakinarazteko beharko diguzu, gutun bidez edo helarazitako bestelako jakinarazpenen baten bitartez.

7.2. Eskubidea duzu gure jardunaren garapenean gerta daitezkeen interes-gatazken berri jasotzeko. Zerbitzuaren kontratu aurreko interes-gatazkan, prebentzioaren eta kudeaketa politika honen laburpena eman zaizu.

7.3. Jarrera zabarkeriaz edo doloz kontratu honetan hartutako obligazioek Bankuak eragin diezazkizukeen kalteei erantzuteko eskubidea duzu. Ez gara, inola ere ez, kudeaketaren azken emaitza ekonomikoaren arduradunak eta, ondorioz, ezta finantza-merkatuen ondorioko inbertsio-arriskuen erantzuleak ere.

## **8. Nola aldatu daiteke kontratu hau?**

8.1. Bankuak kontratu honetako interesak eta gainerako baldintzak aldarazteko modua izango du, indarrean sartu baino hilabete lehenago jakinarazita. Zu aurka ager zaitezke, eta horrek kontratua bertan behera utz dezake. Hilabeteko epea igaro eta ezer adierazi ez baduzu, horiek onartu dituzula ulertuko da. Baldintzak zuretzat hobeak badira, berehala aplikatuko dira.

## **9. Jakinarazpenak**

9.1. Kontratu honetako aldean arteko jakinarazpenak eta informazio-bidalketa, zuretzako intereskotzat jo dezakeguna barne, kontratua izenpetu den hizkuntza berean egingo dira, eta araudiak hala ezartzen duenean, euskarri iraunkorrean eta segurtasuna eta konfidentziasuna frogatuta dituen edozer bideren bitartez. Kotitulartasunaren kasuan, komunikazio horiek bakarrik egin ahalko zaizkio kontratuaren lehen titularrari. Horrek guztiak ez die eragingo telefonoz eman ditzakezun aginduei, une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera, betiere gurekin kanal hori hitzartu baduzu eta hura horretarako gaitu bada.

Jakinarazpen horiek (aldizkako egokitasun-ebaluazioak), eta informazioa ere bai, eman ahalko zaizkizu Bankuak unean unean gaitutako edozer kanaletik, hau da, postaz, SMS mezuz, autozerbitzuko kanalez eta bide elektronikoz, esaterako, posta elektronikoz, Internet bidezko

banka-kanaletik (arlotik pertsonalaren bidez ekipo informatikoetan edo gailu mugikorretan –telefono mugikorrak, tabletak eta bestelako gailu elektroniko baliokideak–) eta unean unean teknologiak ahalbidetu eta Bankuak horretarako gaitu dituen gainerako kanal telematikoz. Komunikazioak bide elektronikoetatik errazten badira, gainera, informazioaren abisu bat jaso dezakezu posta elektronikoz, legearen arabera beharrezkoa den kasuetan. Titulartasun bateratuaren kasuan, zuetako inori eginiko komunikazioa zein dokumentazio- eta informazio-bidaltzea denentzako baliagarria izango da.

9.2. Kontratu honen bidez baimena ematen diguzu euskarri iraunkorrean eman behar zaizun dokumentazio oro igortzeko, aurreko atalean identifikatutako komunikabideetako baten bitartez. Dokumentazio horretan, besteak beste, gomendio pertsonalizatuak, gomendatu ahal izango dizkizugun finantza tresnen kontratuaren aurreko informazioa, zerbitzuaren aldizkako informazioa edo zerbitzuaren kontratuaren aldizkako edo ondorengo informazioa, posizioen laburpena, aginduaren gauzatzea, etab. sartzen dira. Edozein momentutan, adierazten diguzun dokumentazioa postaz bidaltzea erabaki dezakezu.

9.3. Jakinarazpenak hirugarren bati bidaltzeko aukera hautatuz gero, idatziz jakinarazi beharko diguzu Baldintza Partikularretan bildutako terminoetan.

## **10. Bezeroaren Arreta Zerbitzua eta ikuskatze-agintariak**

Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua eskura jartzen zaizu; bertara jo dezakezu edozein kexa edo erreklamazio aurkezteko.

Bezeroaren arreta-zerbitzua  
1598 Posta-kutxa, 1598. 28080 Madril.  
Posta elektronikoa: [reclamacionesSAC@bbva.com](mailto:reclamacionesSAC@bbva.com)  
Doako telefonoa: 900 812 679

Halaber, Bezeroaren Defendatzailearengana ere jo dezakezu, BBVAko bulego guztietan eta [www.bbva.es](http://www.bbva.es) webgunean eskura dagoen prozedurari jarraiki.

Bezeroaren Defendatzailearen Bulegoa  
14460 Posta Kutxa, 14460. 28080 Madril.  
Helbide elektronikoa: [defensordelcliente@bbva.com](mailto:defensordelcliente@bbva.com)

Nolanahi ere, Bezeroaren Defendatzailearengana jo aurretik, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuari aurkeztu beharko zaio erreklamazioa. Bezeroaren Defendatzailearen Araudia daukagu, eta hura begiratu nahi izanez gero, gure edozein bulegotan eska dezakezu edo [bbva.es](http://bbva.es) webgunean bezeroaren arretarako berriarazo estekak sakatuta.

Erantzuna behar bezalakoa ez bada edo zure idazkia aurkeztuta erantzunik jaso gabe bi hilekoepea igaro bada, Baloreen Merkatuko Nazioko Batzordearen Erreklamazio Zerbitzura jo beharko duzu, Edison kalea, 4

28006 Madril.

Ez gaude kontratu honekin loturiko gatazkak ebazteko Kontsumoko Arbitraje-batzorde batera atxikita.

## **11. Gordailuen berme-funtsa**

11.1. Gordailuen Berme-funtsaren araudiari jarraiki, estaldura bikoitza dago, bata gordailuetarako eta bestea baloreetarako. Bi kasuetan ere, bermearen zenbatekoa 100.000 eurokoa da gehienez.

### 11.2. GORDAILUEN ESTALDURARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA.

Banco Bilbao Vizcaya Argenaria, S.A.-n mantendutako gordailuek Gordailuen Berme-funtsaren bermea dute (1). Estalduraren muga: 100.000 euro gordailugile eta kreditu-erakunde bakoitzeko (2). Merkataritza-izendapen honek zure kreditu-erakundea osatzen du: BBVA. Kreditu-erakunde berean gordailu gehiago badituzu, kreditu-erakunde berean dituzun gordailu guztiak batu egiten dira eta guztizkoa 100.000 euroko mugari atxikitzen zaio (3). Kontu bat beste pertsonaren batekin partaidetzan izanez gero, 100.000 euroko muga gordailugile bakoitzari aplikatzen zaio, bereiz (4). Itzultzeko epealdia kreditu-erakundearen konkurtsoaren kasuan. 7 egun baliodun (5). Itzulketa egiten den moneta: Euroak. Harremanetarako: José Ortega y Gasset kalea, 22 - 5. solairua, 28006 - Madril, Telefono-zenbakia +34 91 431 66 45, helbide elektronikoa: fogade@fgd.es . Informazio gehiago: www.fgd.es.

Informazio gehigarria:

(1) Gordailu bat ezin bada erabili, kreditu-erakunde bat bere finantza-betebeharrak betetzeko moduan ez egoteagatik, Gordailuen Berme Sistema batek egingo die itzulketa gordailugileei. Itzulketa 100.000 eurokoa izango da gehienez, kreditu-erakunde bakoitzeko. Horrek esan nahi du kreditu-erakunde berean egindako gordailu guztiak batu egingo zaizkizula, estalduraren maila zehazteko. Gordailugile batek aurrezki-kontu bat edukiz gero, 90.000 eurorekin, eta kontu korrante bat, 20.000 eurorekin, adibidez, 100.000 euro besterik ez zaizkio itzuliko.

(2) Partaidetzan dauden kontuetarako babesaren muga.

Partaidetzan dauden kontuen kasuan, 100.000 euroko muga gordailugile bakoitzari aplikatuko zaio.

Edonola ere, kontu bateko gordailuak gehitu eta gordailugile bakarrak egin izan balitu bezala tratatuko dira bi pertsona edo gehiagok, nortasun juridikorik gabe, sozietate, elkarte edo antzeko talderen bateko bazkide edo kide gisa, horien gaineko eskubideak badituzte, 100.000 euroko muga kalkulatzeko helbururako.

(3) Dirua itzultzea.



Gordailuen berme-sistema arduraduna Gordailuen Berme Funtsa da, José Ortega y Gasset kalea, 22 - 5. solairua, 28006 - Madril, Telefono-zenbakia +34 91 431 66 45, mezu elektronikoa: fogade@fgd.es . Gordailuak honako epeetan itzuliko dizkizu (100.000 eurora arte, gehienez): 20 egun baliodun (2018ko abenduaren 31ra arte); 15 egun baliodun (2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arte); 10 egun baliodun (2021eko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arte), eta 7 egun baliodun (2023ko abenduaren 31ra arte). 2023ko abenduaren 31ra arte Kreditu Erakundeetako Gordailuen Berme Funtsak ezin badu itzuli beharreko zenbatekoa zazpi egun balioduneko epean itzuli, eskaera egiten denetik bost egun balioduneko gehieneko epean, bermatutako gordailuen zenbateko egokia ordainduko die gordailugileei, bere mantentze-lanak estaltzeko. Zenbateko hori itzuli beharreko guztizkoari kenduko zaio. Epe horretan itzuli ez bazaizu, gordailuen berme-sistemarekin harremanetan jarri beharko duzu, itzulketa eskatu ahal izateko denbora mugatua izan daiteke-eta. Informazio gehiago jasotzeko, kontsultatu hemen: [www.fgd.es](http://www.fgd.es).

Bestelako informazio garrantzitsua.

Oro har, gordailugile txikizkari guztiek eta enpresek gordailuen berme-sistemen estaldura daukate. Zenbait gordailuri aplika dakizkiokeen salbuespenak gordailuen berme-sistema arduradunaren webgunean kontsulta daitezke. Zure kreditu-erakundeak, hala eskatuz gero, hainbat produktuk estaldurarik daukaten edo ez jakinaraziko dizu. Gordailuek estaldurarik badute, kreditu-erakundeak kontuko laburpenetan ere egiaztatuko dizu.

Bankuarekin daukazun zorrak Gordailuen Berme Funtsak bermatutako eta itzuli beharreko zenbatekoa kalkulatzeko aintzat hartuko dira.

Ez dira gordailu bermatutzat hartuko norbere kontura eta norbere izenean beste kreditu-erakundeek egindakoak, ezta hurrengo subjektuek eta finantza-erakundeek egindakoak ere: 1. Baloreen sozietateek eta agentziek. 2. Erakunde aseguratzaileek. 3. Inbertsio higiezinako elkarteek. 4. Taldeko inbertsioko erakunde kudeatzaileek, eta pentsio-funtsen sozietate kudeatzaileek, titulizazio funtsenek eta kapital-arriskukoek, eta kudeatzen dituzten erakundeen gordailuenek. 5. Finantza-aholkularitzako enpresek eta zorroen elkarte kudeatzaileek. 6. Arrisku kapitaleko sozietateek eta haiei dagozkien sozietate kudeatzaileek. 7. 575/2013 Arauaren (EB) 4.1.26) artikuluan, 2013ko ekainaren 26koa, Europar Parlamentuarena eta Kontseiluarena, zehaztutako beste finantza-erakundeek. Ez dute estaldurarik izango kreditu-erakundearen funtsek, kreditu-erakundeak jaulkitako balio ordezkariak, ezta ordain-agiriekin eta negoziatzen daitezkeen efektuekin ere. Ez dute estaldurarik izango ere Administrazio Publikoek eraturiko gordailuak, tokiko erakundeek sortutakoak salbu, 500.000 euro edo gutxiagoko urteko aurrekontua badute. Ez daude bermatuta aipaturiko pertsonak titular dituztenak ezta Administrazioenak ere.



## **12. Zer araudi aplika dakioke kontratu honi?**

- 12.1. Berariaz jakinarazten dizugu, berariaz, kontratu honetako Baldintza guztiak Baldintza Orokorrak ⚡ direla, Kontratazioaren Baldintza Orokorrei buruzko apirilaren 13ko 7/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera.
- 12.2. Kontratu honi Espainiako legeria izango zaio aplikagarri. Kontratu honi buruzko auzi guztietarako aldeek adosten dute kontratu honen arabera BEZEROAK duen helbideari dagokion foruaren mende jartzea.

## **13. Kontratua amai dezakezu?**

- 13.1. Kontratu hau amaitzeko eskubiderik ez duzula jakinarazten dizugu, formalizatorako erabili zen kanala dena delakoa izanik ere.

## **14. Sinadura geroratu**

- 14.1. Sinadura geroratuak kontratua urrutiko kanal baten bidez edo, Bankuaren edozein bulegotan sinatzea ahalbidetzen du, gailu elektroniko baten bidez. Horretarako, titularrak bulegoan eskatu behar du eta Bankuak sinadura-egitekoaren berri emango dizu, posta elektronikoz, push jakinarazpenez edo baliokide baten bidez, eskuragarri dituzun kanalen bidez sinatzeko (webgunearen eremu pribatua edo aplikazio mugikorrarena, bulegoan tablet edo baliokide den beste gailu elektroniko batean sinadura digitalaren bidez, etab.) ataza jakinarazi eta sinadura-egitekoaren jakinarazpenean ezartzen den gehieneko epean.
- 14.2. Dokumentuak hainbat titularri erreferentzia egiten badie, azken kideak sinatzen duen datan eta orduan denek sinatu dutela ulertuko da. Bankuak titular guztiei horren berri emango die, soilik denek jakinarazitako epearen barruan sinatu badute.
- 14.3. Titular batek ez badu sinatzen adierazitako epean, sinadura-zeregina iraungiko da, eta kontratazioa ez da egintzat joko titular batentzako ere ez. Bankuak iraungitze hori jakinaraziko die titular guztiei, epearen barruan sinatu badute edo ez badute ere.
- 14.4. Klausula honetan zehaztutakoa aplikagarria izango da kontratu honekin lotutako edozein dokumentazioren sinadura geroraturentzat (titular bakarrarentzat edo hainbat titularrentzat bada ere); adibidez, egokitasun-ebaluazioen eta berrebaluazioen, pertsonalizatutako gomendioen, aholkatutako tresnen kontratu aurreko informazioaren, horiek gauzatzeko aginduen, zorroaren xedapenen, eta abarren sinadura. Titular bat baino gehiago badago, ikusi beharko da dokumentua titular bakar batek edo guztiek sinatu behar duten (solidaritate baldintzari jarraitzen zaion kasuetan).

## **15. Datu pertsonalak jakinaraztea**

Datu pertsonalak babesteko aplikaziozko legerian ezarritakoa betetzeko, IV. eranskinean informatzen dizugu kontratu honetatik eratorritako datu pertsonalen komunikazioei buruz.

- 16. EZOHIKO ABAGUNEAK**- Kontratu honetako betebeharrak ezin badira bete edo atzerapenez betetzen badira ezinbesteko kasu baten egoera dela eta, edo agintaritzak osasun krisi edo krisi humanitario egoera bat aitortu, eta horren erruz ezinezko edo oso zaila bada kontratua betetzea, bereziki Covid-19 dela eta, Bankua ez da izango atzerapen horien erantzulea.

**ORDEZKARITZA BITARTEKO ZORROEN KUDEAKETA DISKREZIONALEKO ZERBITZU KONTRATU-TIPOARI LOTUTAKO BALDINTZA PARTIKULARRAK****Zorro Zenbakia: 0182-2025-0937-\_\_\_\_\_****HITZARTU DUTE****Lehena.- Arrisku-profil orokorra eta jasangarritasun-hobespenak.**

Klausula honetan zehazten den arrisku-profila bat dator zure egokitasun-ebaluazioaren emaitzarekin.

- Oso txikia
- Behea
- Ertaina
- Handia
- Oso handia




**Arrisku-profilen definizioa.**


**Oso txikia:** errenta aldakorreko 📈 % 10 arte; **Txikia:** errenta aldakorraren % 30 arte; **Ertaina:** errenta aldakorreko % 50 arte; **Handia:** errenta aldakorraren % 70 arte; **Oso handia:** errenta aldakorraren % 100 arte.

Bankua, modu justifikatuan, eta merkatuko abaguneak edo inbertsioko irizpide profesionalak kontuan izanda, ehuneko horietatik desbideratu ahal izango da. Gainera, Laugarren Hitzarmenean klausulan hautatutako aktiboak kontuan hartuko dira, inbertsio-profila eta egin daitezkeen eragiketak bat etor daitezten.

Inbertsio-produktuaren errenta finkoko 📈 edo aldakorreko izaerak ez du haren arrisku-maila aurreikusten 📈. Hainbat faktore hartu behar dituzu kontuan, esaterako, aktiboak merkatu antolaturen 📈 batean kotizatzen duen ala ez; muga-eguna; tresnen balorazioan eragina izan ditzaketen interes-tasen etorkizuneko eboluzioa; jaulkitzailearen kaudimen ezako kasuetan tresnen ordainketa ordena; partaideek merkatuak erabilitako tresnen balorazioa inbertitzailearen/estalduraren eta itxaropenen arabera, etab.

Azken finean, errenta finkoak ere baditu arriskuak. Ondorioz, jakin behar duzu tresna horietan inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea gerta daitekeela.

Gainera, kontuan izan zure zorroan sartzeko produktu hibridoak  sartu ahal izango zaizkizula, eta, horiek, errenta finkoaren antzerako ezaugarriak eta errenta aldakorraren beste batzuk dituztela. Mota honetako produktu nagusiak lehentasuneko  partaidetzak eta obligazioak  eta bonu bihurtgarriak dira.

Halaber, kontuan izan, zure inbertsio-lehentasunen eta hautatutako arrisku-profilaren arabera, balitekeela  zorroan produktu konplexuak sartzea, hala nola lehentasuneko partaidetzak, birkapitalizaziorako pasibo onargarriak diren finantza-tresna jakin batzuk, eratorriak eta abar; horrela, profil oso baxuko, baxuko edo ertaineko zorroek ere, osatzen duten aktiboen artean, mota horretako produktuak sartuko dira.

### **Jasangarritasunaren hobespenak**

Zorroaren jasangarritasun-hobespenak zure egokitasun-ebaluazioan adierazitako hobespenekin bat datoz.

### **Bigarrena.- Inbertsioaren denbora-epemuga / esparru geografikoa .**

Klausula honetan zehazten diren denbora-epemuga eta eremu geografikoa bat dator zure egokitasun-ebaluazioarekin.

Denbora-mugaeguna: urte baino gehiago

Eremu geografikoa: MUNDIAL SESGO EUROPA

### **Hirugarrena.- Erreferentziako indizea.**

Zure karteraren kudeaketan lortutako emaitza ebaluatzeko modua izan dezazun, Bankuak eman dizun Kartera-proposamenean adostutako erreferentzia-indize konposatua erabiliko du (Benchmark).













Bankuak aurreko erreferentzia-indizeak beste batzuegatik aldatu ahal izango ditu berriek egoki diren inbertsio-kategoriaren alderatze zehatzagoa ahalbidetzen dutela uste badu. Kasu horretan Bankuan behar adinako aurrerapenaz jakinaraziko dizu.

Zure inbertitzaile-profila aldatuz gero, zurekin erreferentzia-indize konposatu berri bat adostuko da.

### **Laugarrena.- Kontratatu ahal izango diren aktibo-motak.**

#### **4.1. Baimendutako aktibo-motak: (\*)**


(\* ) Adierazi X batez zure karteran sar daitezkeen aktiboak. Horretarako, irakurri arretaz hurrengo 4.2. atala. Laukirik ez markatuz gero, Bankuak ulertuko du EZIN izango dela halako tresnen gaineko eragiketarik egin.

Tresna mota	BAI	EZ
Inbertsio kolektiboko erakunde ez konplexuak		
Akzio  kotizatuak		
Kontratu finantzarioak		
Gordailu egituratuak		
Inbertsio kolektiboko erakunde ez harmonizatuak  eta inbertsio kolektiboko erakunde egituratuak 		
Arrisku kapitaleko erakundeak 		
Errenta finko ez konplexua eta Bail in-a		
Errenta finko egituratua 		
Lehentasunezko eta mendeko errenta finkoa 		
Errenta finko konplexu kotizatu gabea		
Lehentasunezko errenta finkoa / betirako kotizatu gabea, titulizazioak  , bihurtgarria, Exchange Traded Notes  , Exchange Traded Commodities 		
Harpidetza-eskubideak  *		
Errenta aldakor kotizatu gabea		
Gordailu-ziurtagiriak akzio kotizatuen gain		
Harpidetza-eskubide kotizatu gabeak, kotizatu gabeko akzioen gaineko gordailu-ziurtagiriak, parte hartzeko kuotak  eta lehentasunezko akzioak 		
Eratorkiak inbertsio- eta estaldura-xedearekin		

\* Harpidetza-eskubideen gainean eragiketarik egitea onartzen ez baduzu, ezingo dira gauzatu haien inguruko salerosketak bigarren mailako merkatuan; salbuespen bakarra akzio hori erosteko beharrezkoak diren eskubideen kopurua biribiltzeko akziodunari eros diezaiokезun harpidetza lehenetsiko eskubideak dira.


## 4.2. Zenbait aktiboren arriskuari buruzko informazioa.


1.- Finantza tresna eratorriak: izan kontuan finantza tresna eratorrietan inbertitzeak arriskuak dakartzala, estaldura-xedea dutenean ere bai. Ondorioz, zure inbertsio-lehentasunekin eta zure arrisku-profilarekin lotuta egiten dugun estrategiak agian ez du izango hasiera batean aurreikusitako emaitza.

Finantza-tresna deribatuak kontratatzeak, bai arriskua kudeatzeko zein inbertitzeko helburuaz, azpiko aktiboan  egindako inbertsioak bezeroak dituenen arrisku osagarriak dakartza. Hori horrela da oro har deribatutako finantza-tresnak bereziki sentiberak direlako azpikoaren prezioaren aldaketekiko; hortaz, gerta daitezkeen galerak biderkatu egin daitezke, zure karteraren balioari eraginez.

Jakin behar duzu, gainera, finantza-tresna deribatuak antolatutako merkatuetatik kanpo kontratatzeak arrisku osagarriak dakartzala, esate


baterako kontrako alderdiaren urratzea, ez baitago eragiketen amaiera ona bermatuko duen konpentsazio-ganberarik.

Kontuan izan ere epea dela finantza-tresna deribatuekin egindako eragiketen funtsezko elementuetako bat, hori dela eta, halako edozein eragiketa behar baino lehen baliogabetzeak bi alderdien aurretiazko adostasuna eskatuko du. Behar baino lehen baliogabetzeko adostasunera helduz gero, baliogabetze hodi merkatuko prezioetan  egingo da, eta horrek galera ekonomikoa ekar dezake, une horretara arte eragiketa horretan lortutako etekin posibleaz gaindi ere.


2.- Tresna likidoak: horietan ez dago merkatu antolaturik, non inbertsioa azkartasunez eta prezio zuzen batean ezin den desegin, eta, beharbada, inbertitzaileak inbertsioa mantendu beharko du hura iraungi arte. Aktibo mota horretarako, baloreoaren preziorako penalizazio bat egon ohi da, inbertsioa alde aurretik desegin behar izanez gero. Oro har, aktiboa likido  urrikoa bada, handiagoa izango da inbertitzaileak inbertsioa desegiteko onartu behar duen prezioaren penalizazioa.

Tresna hauen barruan daude, besteak beste:

(a) Arrisku-kapitaleko akzioak eta partaidetzak: aurrez adierazitako arriskuez gain, tresna mota horiek kotizatu gabeko enpresetan inbertitzen dute, konpainia kotizatuak baino arrisku handiagokoak izan ohi direnetan, tamaina txikiagokoak direlako eta ingurune ekonomikoan, merkatuan eta teknologian gertatzen diren aldaketek eragin edo kalte handiagoak dakarzkielako eta beren talde kudeatzailearen gaitasunaren eta lanaren mendekoak direlako. Errentagarritasunaren itzaropena zalantzarazkoa da eta inbertitu diren enpresen bilakaera ekonomikoaren araberakoa izango da, eta inbertitutako kapitalaren oso galera handia ekar dezake.

(b) Aktibo higiezinetan eta azpiegituretako funtsetan, zein kudeaketa alternatiboko tresnetan (hedge fund ), oinarritzen diren balore eta finantza tresnek, tresna likidoak izateaz gain, honako hauek eragin ditzakete:

(i) eragiketaren menderatzerik eza inbertitzaileen babesera, CNMVren profesionaltasun- eta kalitate-estandar baliokideak dituen baloe-merkatua arauten duen erakunde baten arauketan eta gainbegiratzean oinarrituta,

(ii) paradisu fiskalean  eginiko inbertsioa eta horrek dakarren gardentasunik eza eta Gordailu Bermearen Funtsetan alderdiaren aldeko estaldurarik eza, edo arrisku handia hartzea, besteak beste, merkatuak eta kontrako alderdiak.

3. Kotizatu gabeko finantza tresnak (adibidez, kotizatu gabeko akzioak, kotizatu gabeko partaidetza-kuotak, kotizatu gabeko gordailu-ziurtagiriak, kotizatu gabeko lehentasunezko harpidetza-eskubideak, kotizatu gabeko bonoak eta betekizunak –barne-birkapitalizaziorako pasibo onargarritzat jotzen direnak barne-, ohar egituratuak, lehentasunezko partaidetza kotizatu gabeak, kotizatu gabeko titulizazio bonoak, etab). Baloreen trukeko merkatu

antolatu batean kotizatzen ez duenez, inbertsioa desegiteko aukerak oro har ziurtasun-maila txikia izango du epeari eta prezioari dagokienez. Aktiboen jabeak bilatu beharko du kontrako alderdia aktiboak saltzeko, eta hori ez da erraza izango beti eta aktibo horien ustezko balioaren azpiko salmenta-prezioa ekarri ohi du. Zenbaitetan, jaulkitzaileak edo hirugarren batek likidezia-klausula motaren bat gehitzen diete finantza tresnei, prezioari dagokionez gardentasunik ez badago ere.

4. Barne-birkapitalizaziorako pasibo onargarriak («bail in» ere izendatzen zaie, eta, besteak beste, hauek izan daitezke: akzio kotizatuak edo kotizatu gabeak, akzioen gordailu-ziurtagiriak, partaidetza-kuotak, lehentasunezko harpidetza-eskubideak, lehentasunezko akzioak, bonoak, betekizunak eta bestelako balore antzeko kotizatu gabeak, bono eta betekizun bihurtgarriak, ohar egituratuak, lehentasunezko partaidetzak, azpiko zor-tresna iraunkorrak, Exchange Traded Notes, Exchange Traded Commodities eta mendeko bono eta betekizunak eta abar; betiere kreditu-erakunde edo inbertsio-zerbitzuko enpresa batek jaulki baditu). Pasibo mota horiei, besteak beste, honako egoera hauek eragin liezaiekete:

- a) Zenbateko nominalaren edo interes-tasaren murrizpena, zerora murriztu ahal izan litekeena.
- b) Beste finantza-produktu bat bilakatzea, adibidez akzio arruntak.
- c) Ebazten ari diren finantza-erakundeko aktiboak beste erakunde-zubi<sup>🔗</sup> batera aldatzea edo zure aktiboak edo negozioak saltzea, modu horretan etorkizuneko ordainketa-betebeharrak betetzeko gaitasuna mugatuz.
- d) Ebazten ari diren erakundeko ordainketa-betebeharretan atzeratzea edo ordainketak bertan behera uztea, denbora-tarte batean.

Aurrekoaz gain, ebazpen egoera batek birkapitalizazioko tresnetan izan dezakeen inpaktu zehatza titularrak erakunde birkapitalizatuaren hartzekodun gisa duen posizio hierarkikoaren<sup>🔗</sup> arabera, esaterako, produktua mendekoa<sup>🔗</sup> izatearen ala ez izatearen arabera. Aldi berean, likidezian ere izan dezake eragina, edo erakundeak<sup>🔗</sup> hartutako berrerosketa-konpromiso edo adostasunetan ere.

5. *Exchange Traded Products*: produktu kotizatuak dira, zeinen inbertsioak galera handiak eragin diezazkioke inbertitzaileari, inbertitzen duen aktiboen prezioen bilakaera negatiboaren ondorioz. Azpiko aktibo motaren arabera, Exchange Traded Notes (ETN) eta Exchange Traded Commodities (ETC) direlakoan artean bereiz daitezke. Gainera, egituraren arabera, alderantzizkoa edo palanka-efektukoa izan daiteke, eta horrek arrisku handiagoa dakar, galera potentzialak ugaritzen direlako (palanka-efektua dela medio) erreferentziazko azpikoaren kontrako mugimenduen aurrean eta alderantzizko egitura duten tresnen kasuan, azpikoa mugarik gabe igotzeko arriskua dute eta. Bestalde, eratorrien bidez babesaren duten ETNen eta ETCen kasuan, zenbait egoeratan kreditu-arriskua ekar dezakete, tituluen jaulkitzaileak zailtasunak baditu ordaintzeko betekizunak betetzeko, azpiko prezioak bilakaera negatiboa izatearen ondorioz; eta horrek tresnaren likideziari berari eragin diezaiolke.

Izan kontuan aurreko paragrafoetan adierazitako finantza tresnen arriskuen



azalpena ez dela zorrotza. Jarraian, edozer finantza tresnan inbertitzeak dakartzan arrisku ohikoenak adieraziko dizkizugu:

- a) Aktibo baten kreditu-arriskua jaulkitzailearen rating-a (kreditu-kalifikazioa) aldatzeagatik, beharbada, haren kaudimenari eragin diezaiokeena betekizunak betetzeko orduan, eta jaulkitzaile horrek jaulkitako aktiboen prezioa zuzenean kaltetuko lukeena. Kreditu-arriskuaren barruan gehitu ahal dira:

Kontrako alderdiaren arriskua, zeinaren ondorioz, alde batek kontratuan ezarritako betekizun guztiak edo batzuk beteko ez dituen (aktibo eratorrien kasua).

Herrialde-arriskua: zor-aktibo baten kreditu-arriskua jaulkitzailearen kaudimenaren araberakoa bakarrik ez delako, jatorrizko herrialdearen araberakoa ere bada, eta horrek aktiboaren kreditu-kalitateari eragiten dio.

- b) Merkatu-arriskua: aktiboen prezioa xedatzen duten faktoreek jasandako aldaketek sortutako galera potentziala da, aktibo horren izaeraren arabera –errenta finkoa / errenta aldakorra edo eratorriak–, arrisku potentzialeko faktore ezberdinak bereiz daitezke, merkatu-arriskua dakartenak:

Interes- eta berrinbertsio-arriskua: zor-aktiboaren iraupenaren arabera, interes-tasek inbertsio-prezioaren gain izan dezaketen bilakaerak sortutako efektuaren ondorioz sor daiteke arrisku hori edo zure inbertsiotik eratorritako fluxuak interes-tasa txikiagoan berrinbertitzearen ondorioz.

Errenta aldakorraren arriskua, errenta aldakorreko aktiboen prezioen aldagarritasunak eragiten duena.

Dibisa-arriskua, euroa ez diren txanponen, zeinetan aktiboak izendatu diren, gorabeheren ondorioz.

Hegakortasun-arriskua, aktibo eratorriak negoziatzen diren merkatuetako tresna ezberdinek kotizatzen duten hegakortasun inplizituaren mailetako aldakuntzen ondorioz.

- c) Eragiketa-arriskua: erakunde bitartekariak okerrak egitearen ondorioz baloreen salerosketako eskualdatzean eta jarraibideen exekuzioan. Honako hauetan gertatzen diren akatsengatik ere izan daiteke: barne-prozesuetako akatsak, akats teknologikoak/informatikoak, kontrol-sistemetako gabeziak edo gizakien okerrak, barne- eta kanpo-iruzurrak, hondamen naturalak.
- d) Ospe-arriskua: erakunde jaulkitzaileei dagokienez, bezeroen, akziodunen, langileen eta abarren ikuspegia aldatzearekin lotutako arriskua da. Arrisku hori sortzen da baloreen jaulkitzaileari publizitate negatiboa egiteko jardunen ondorioz, eta, horregatik, jaulkitzaile horrenganako konfiantza-galera eragin daiteke. Ondorioz, jaulkitzailearen kaudimena eta beste alderdi batzuk kaltetu daitezke, esaterako, bezeroak galtzea, zehapenak, etab.

- e) Betetze-arriskua: lege- edo administrazio-zehapenak jasotzeko arriskua, galera finantzario handiak izateko edo ospea galtzeko arriskua legeak, erregelamenduak, barne-arauak edo ereduzko kodeak ez betetzeagatik, inbertsioen gain efektu negatiboa izan lezakeena.
- f) Arrisku sistemikoa: parte-hartzaile batek sistema batean ordaintzeko betekizunak betetzeko ezintasunaren ondorioz, gainerako parte-hartzaileek betekizunak bete ezin izateko arriskua, kutsatzeko efektu posibleekin, adibidez, likidezia edo kredituko arazo handiak, sistema finantzarioaren egonkortasuna arriskuan jar lezaketeenak.

### **Bosgarrena.- Zure berariazko baimenak. (\*)**

(\*) Seinala ezazu X batez puntu bakoitzean adierazten denerako Bankuari baimena ematen diozun ala ez. Bat ere markatzen ez baduzu, berariazko baimenik ematen EZ duzula ulertuko dugu.

BAIMENAREN EDUKIA	BAIMENA	
	BAI	EZ
<p>1.- Bankuari hauen gaineko eragiketak edo inbertsioak egiteko baimena ematen diozu.</p> <p>(i) Bankuak edo bere taldeko erakundeek edo hark kudeatutako IICek jaulkitako finantza-tresnetan; edo</p> <p>(ii) finantza-tresnen harpidetzea edo eskuratzea Bankua edo bere taldeko Erakunderen bat jaulkipenaren edo salmenta publikoaren eskaintzaren aseguratzaile edo jartzaile gisa badihardu, edo</p> <p>(iii) Bankuaren konturako edo bere Taldeko erakundeen eta zure arteko negozioaren ondoriozko finantza-tresnen gainean, berez, edo dagoeneko zure kartera aholkatuan dauden finantza-tresna horietako posizioak batuta, kudeatutako karteraren %25 baino gehiago izan daitekeenean.</p>		
<p>2.- Aurreko puntuan emandako baimenaz gain, berariazko baimena ematen duzu, izaera generikoaz, Bankuak zure izenean finantza-tresna deribatuak kontrata ditzan, non Bankua bera kontrako alderdia izango den, beti ere merkatuko prezioan kontratatzen badira zurearen antzeko ezaugarriak dituzten bezeroentzat.</p>		

3.- Baimena ematen duzu kontratu honi buruzko informazioa eta jakinarazpenak bidaltzeko ondoren zuk izendatutako hirugarren bati igortzeko, eta onesten du hari lagatzen dizkiola inbertsio gaiei buruzko aholkua emateko zerbitzuaren prestazioari dagozkion datu pertsonalak eta ekonomikoak

**Hirugarrenaren identifikazioa pertsona fisiko edo juridikoa]**

**[Jakinarazpenak bidaltzeko helbidea]**

Baimena nahi duzunean alda dezakezu zure bulegoan, Baldintza Partikular berriak edo haiek aldatzen dituen sinatuta, Baldintza Orokorren 1.3 atalean aurreikusitakoa beteaz.

**Seigarrena.- Kontuen identifikazioa**

**ESKU-DIRUAREN GORDAILUAREN ERAKUNDEA:**

Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A

Kontu korrante zenbakia : \_\_\_\_\_

**BALORE ETA FINANTZA-TRESNEN ERAKUNDE GORDAILUZAINA:**

Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.

Balore kontua zenbakia : \_\_\_\_\_

**Zazpigarrena.- Kudeaketa-aginduaren mugapenak.**

Mugak jarri ahal izango dituzu tresna jakin batzuen eragiketarako. Horretarako, dokumentu jakin bat sinatu behar duzu, Bankuak ere sinatu beharrekoa, eta Eranskin bitartez kontratu honi erantsiko zaiona.

**Zortzigarrena.- Zorroen kudeaketa diskrezionaleko zerbitzuaren ordain-saria.**

Bankuak karteren kudeaketa diskrezionaleko zerbitzu honengatik jasoko duen ordainsaria I. Eranskinean ezarrita dago eta BEZ gehituko zaio, edota aplikagarri izan dakioken gainerako zerga oro.

**Bederatzigarrena.- Bezeroaren aitorenak.**

Kontratua sinatu aurretik, zerbitzuaren kontratu aurreko informazioa biltzen duen dokumentua, eta zure zalantzak argitzeko beharrezkoa izan den denbora eta azalpenak eskaini dizkiogu. Hala izan ez bada, jar zaitez gurekin harremanetan dokumentua sinatu aurretik.

**Kontratu honi aplikagarri zaizkion kudeaketa-komisioak**

## II. ERANSKINA

### INBERTSIO GAIEI BURUZKO AHOLKULARITZA KONTRATUA DUTEN KARTERETAKO FINANTZA AKTIBOEI APLIKA DAKIZKIEKEEN BALORAZIO IRIZPIDEAK

#### **Merkatuetan kotizatzen diren edo likidazio-balioak dituzten inbertsioetarako**

#### **HARPIDETZA AKZIO ETA ESKUBIDETAN, BURTSA NAZIONALETAN KOTIZATUAK (I.K.E. EZIK):**

- Merkatu-itxierako kotizazioa.

#### **HARPIDETZA AKZIO ETA ESKUBIDETAN, ATZERRIKO BURTSETAN KOTIZATUAK**

- Merkatu-itxierako kotizazioa, dibisaren kontrabaliorekin eguneratuta.

#### **INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDE NAZIONALETAN:**

- Inbertsio eta Pentsio Funtsak: Erakunde Kudeatzaileak erraztutako likidazio-balioaren arabera.

- BBVA Taldearen SIM eta SIMCAV: Erakunde Kudeatzaileak erraztutako likidazio-balioaren arabera.

- BBVA Taldeak kudeatzen ez dituen SIM eta SIMCAV: Merkatuetako kotizazio-balioaren arabera.

#### **NAZIOARTEKO INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEETAN:**

- Inbertsio-funtsak: Erakunde Kudeatzaileak erraztutako likidazio-balioaren arabera, dibisaren kontrabaliorekin eguneratuta.

- BBVA Taldeak merkaturatutako SICAV: Inbertsio-funtsak: Erakunde Kudeatzaileak erraztutako likidazio-balioaren arabera, dibisaren kontrabaliorekin eguneratuta.

#### **MEFF BITARTEZ KONTRATATUTAKO GEROKO ETA OPZIOETAN:**

- Merkatu-itxierako balioa.

#### **LETRA, ZOR AGIRI, ESTATUKO REPO ZOR EDO ENPRESA NAZIONALETAN:**

- Erosketaren zenbatekoa dagozkion interesen periodifikatzearekin handiagotuta.

#### **MUGAEGUNERAKO ERRENTA FINKOA - OBLIGAZIOAK BURTSA NAZIONALETAN KOTIZATUAK:**

**Kupoidun kotizazioak:** Merkatuko kotizazioa aplikatzen da, honako berezitasunekin:

- Azken kotizazioaren egunaren eta karteraren balorazioaren artean ez bada interes-ordainketarik egon, azken kanbioa aplikatzen da, gehi azken kotizazio egunaren eta balorazioaren arteko kupoi korritua.

- Azken kotizazioaren egunaren eta karteraren balorazioaren artean ez bada interes-ordainketarik egon, %100 kanbioa aplikatzen da interesen ordainketa-egunean, balorazio-egunera arteko kupoi korrituarekin handituta.

**Ex-kupoi kotizazioa:** Azken kanbioari interesen periodifikatzea gehitzen zaio.

#### **MUGAEGUNERAKO ERRENTA FINKOA - OBLIGAZIOAK ETA BONOAK ATZERRIKO BURTSETAN KOTIZATUAK:**

Ex-kupoi kotizazioa: Azken kanbioari interesen periodifikatzea gehitzen zaio.

#### **EGITURATUAK:**

- BBVAk merkaturatutakoak: Merkatuko balioa.

- Beste merkaturatzaileak: Hainbat informazio iturritik lortutako kotizazioaren arabera.

#### **LEHENTASUNEZKO AKZIOAK:**

- Merkatuetako balioaren arabera.

#### **Eskudiruzko gordailuetarako**

#### **ESKUDIRUA KONTU KORRONTEAN:**

- Kontuan eskura den saldoa.

**Kotizatzen ez duten inbertsioetarako, edo merkatuko azken kotizazioa zaharra edo ez adierazgarria denean:**

#### **BALORE NAZIONALAK:**

##### **Errenta Aldakorra:**

- Karteararen informazioan "Hainbat" izeneko burtsa-sektorean daudenak:

- Kotizatzen ez badute edo kotizazio-daturik ez badago: TITULUEN NOMINALAK BALORATUAK.
- Merkaturen batean kotizatu dute eta honako arrazoiengatik kotizatzeari utzi diote. BURTSA ARLOKO AZKEN KOTIZAZIO ERABILGARRIAREN ARABERA BALIOZTATUAK .
- Bestelako baloreak
  - Porrot egin dute. ZERORA BALORATUAK
  - Sozietatearen kontabilitate-informazioarekin: ESKURA DEN EGUNEKO KONTABILITATE BALIOAZ BALORATUAK.

##### **Errenta Finkoa:**

- Kupoidun kotizazioak- Merkatu Elektronikoa: Merkatuko kotizazioa aplikatzen da, honako berezitasunekin:
  - Azken kotizazioaren eta karteraren balorazioaren artean interes-ordainketarik egon ez bada: AZKEN KANBIOA GEHI AZKEN KOTIZAZIO EGUNAREN ETA BALORAZIOAREN ARTEKO KUPOIA.
  - Azken kotizazioaren eta karteraren balorazioaren artean interes-ordainketarik egon bada: %100EKO KANBIOA INTERESEN ORDAINKETA EGUNEAN, BALORAZIO EGUNERA ARTEKO KUPOI KORRITUAK HANDIAGOTUTA.
- Ez-kupoiko kotizazioa-MC Merkatua - Taldeen Merkatua:
  - Beti aplikatuko dira interesak aldika. AZKEN KANBIOA GEHI KUPOI KORRITUA ZERI BURUZKOA.

#### **ATZERRIKO BALOREAK:**

##### **Errenta Aldakorra:**

- Karteararen informazioan "Hainbat" izeneko burtsa-sektorean daudenak, honako irizpideak aplikatuko dira:

- Azken kanbio ezaguna.
- Erosketa-kanbioa.
- Tituluen nominala.

##### **Errenta Finkoa:**

Ex-kupoi titulu guztiak, kotizazioarengatik balorazioari dagokion interesen periodifikatzea aplikatuz, honako berezitasunekin:

- Kotizatzeo ez onartutako jaulkipen berriak: TITULU HARPIDETZA ALDAKETA.
- Kotizatzeari utzi dioten jaulkipenak: ESKURA DEN AZKEN KOTIZAZIOA
- Daturik ez izatekotan: %100

## IV. ERANSKINA

### DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

#### 1. BBVAren datu pertsonalak jakinaraztea kudeatzaileari

Kontratu hau sinatzean, eta BBVA Asset Management, S.A.-k kudeatutako Talde Inbertsio Erakundeen (IIC) partaidetzak jasotzen dituzunean beharrezkoa izango da gestoreari zenbait datu pertsonal ematea. Jakinarazpen hori beharrezkoa izango da harpidetzen dituzun IICen partaide izan zaitezen, eta BBVA AMek inbertsio funtsen gestore gisa dagozkion betebeharrak bete ditzan. Lagapen horrek datu lagapen legal izaera izango du.

Datu Pertsonalen babesari buruzko araudi aplikagarrian ezarritakori jarraiki, jarraian azaltzen dizugu bai BBVAk (lagatzaile gisa) bai Gestoreak (lagapen-hartzaile gisa) nola erabiliko dituzten zure datuak.

<b>BBVAren informazioa zure datu pertsonalen lagatzaile gisa</b>	
Tratamenduaren arduraduna	BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. IFK: A-48265169.
Lagapenerako legitimazio oinarria	Zuk parte hartu duzun kontratuan oinarritzen da lagapenaren egikaritzea eta haren gain oinarritzen dira Gestoreak kudeatzen dituen IICetan egingo dituzun inbertsioak.
Datu eta iturri kategoria	BBVAk emango dizkio datu pertsonalak Gestoreari eta aurrez adierazitako xedea betetzeko beharrezko datuak izango dira, identifikazio datuak, harremanetan jartzeko datuan, finantza datuak eta datu ekonomikoak.
Zure eskubideak baliatzea	Datuak eskuratu, zuzendu eta ezeztatzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal izango dituzu, idatzi bat bidalita, helbide elektronikoa honetara: derechosprotecciondatos@bbva.com  Eta honako helbide honen bidez jar zaitezke harremanetan BBVAren Datuen Babesaren Ordezkariekin: dpogrupobbva@bbva.com. Halaber, datu Pertsonalen erabileran datuen babeseko araudia urratu duela uste baduzu, Datuen Babeseko Espainiako Agentziaren (www.agpd.es) aurrean aurkeztu dezakezu zure erreklamazioa.
BBVAk zure datuei emango dien tratamenduari (zenbat denboraz gordeko diren datuak, hartzaileak, legitimazio oinarrien xehetasunak...) buruzko informazio gehiago nahi baduzu "Nire profila" atala webgunearen eremu pribatuan ala BBVA App an kontsulta dezakezu.	



<b>Gestorearen informazioa zure datu pertsonalen lagapen-hartzaile gisa</b>	
Tratamenduari buruzko informazio berria	BBVA ASSET MANAGEMENT, S.A., SGIIC, IFK: A28597854 datuen arduradun gisa, zure Datu Pertsonalak tratatuko ditu.
Lagapenerako legitimazio oinarria eta xedea	Kontratutako IICei buruzko aginduak tramitatu eta horien inguruko informazioa eman. Kontsultak, gertakariak, erreklamazioak kontrolatu, aztertu eta kudeatu, bai eta IICen administrazio eta kudeaketaren ondorioz araudiak ezarritako betebeharrak betetzea ahalbidetu. Legitimazio oinarria Kontratuaren exekuzioa da, bai eta indarrean dagoen arauditik eratorritako betebeharrak legalak betetzea.
Datu eta iturri kategoriaz	BBVAk emango dizkio datu pertsonalak Gestoreari eta aurrez adierazitako xedea betetzeko beharrezko datuak izango dira, identifikazio datuak, harremanetan jartzeko datuak, finantza datuak eta ekonomikoak.
Hartzaileak	Ez zaizkie datuak hirugarrenei lagako legeak derrigortzen ez bada, kontratu-harremana gauzatzeko ez bada ez bada edo aurrez Gestorearekin adostu ez baduzu. Intsuldatze-eskaeren kasuan, Gestoreak zure datu pertsonalak intsuldaketaren xede den IIC hartzailearen entitate kudeatzailearen edo merkaturatzaileari jakinaraziko dizkie, haren aginduz, eskaera hori bete ahal izateko.
Zure eskubideak baliatzea	Datuak eskuratu, zuzendu eta ezeztatzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal izango dituzu, idatzi bat bidalita, helbide elektronikoa honetara: <a href="mailto:derechosarso-bbvaam.es@bbvaam.com">derechosarso-bbvaam.es@bbvaam.com</a>  Eta honako helbide honen bidez jar zaitezke harremanetan Gestorearen Datuen Babesaren Ordezkariarekin: <a href="mailto:dpogrupobbva@bbva.com">dpogrupobbva@bbva.com</a> . Halaber, Datu Pertsonalen erabileran datuen babeseko araudia urratu duela uste baduzu, Datuen Babeseko Espainiako Agentziaren ( <a href="http://www.agpd.es">www.agpd.es</a> ) aurrean aurkeztu dezakezu zure erreklamazioa.
Gestoreak zure datuei emango dien tratamenduari (zenbat denboraz gordeko diren datuak, hartzaileak, lege oinarriari buruzko xehetasun gehiago) buruzko informazio gehiago nahi baduzu sartu <a href="https://bbvaassetmanagement.com/es/politica-de-proteccion-de-datos-personales/">https://bbvaassetmanagement.com/es/politica-de-proteccion-de-datos-personales/</a>	

## 2. Gestoreak BBVAri datu pertsonalak jakinaraztea

Beharrezkoa izango da Gestoreak kudeatutako IICetan burututako inbertsioei buruzko zenbait datu pertsonal ematea BBVAri. Jakinarazpen hori beharrezkoa da BBVAk kontratu honetatik eratorritako informazio betebeharrak bete ditzan. Lagapen horrek datu lagapen legal izaera izango du.

Datu Pertsonalen babesari buruzko araudi aplikagarrian ezarritakori jarraiki, jarraian azaltzen dizugu bai Gestoreak (lagatzaile gisa) bai BBVAk (lagapen-hartzaile gisa) nola erabiliko dituzten zure datuak.

<b>Zure datu pertsonalen lagatzaile gisa Gestorearen informazioa</b>	
Tratamenduaren arduraduna	BBVA ASSET MANAGEMENT, S.A., SGIIC, IFK: A28597854
Lagapenerako legitimazio oinarria	Zuk parte hartu duzun kontratuan oinarritzen da lagapenaren egikaritzea eta haren gain oinarritzen dira Gestoreak kudeatzen dituen IICetan egingo dituzun inbertsioak.
Datu eta iturri kategoria	Gestoreak honako datu pertsonalak emango dizkio BBVAri: *Zu partaide zaren IICen posizioa. *IICen posizioei eragin diezaketean eta Gestoreari jakinarazi zaion partaideen erabilgarritasunari eragin diezaioketen egoeraren bat edo titulartasuna aldaketa.
Zure eskubideak baliatzea	Datuak eskuratu, zuzendu eta ezeztatzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal izango dituzu, idatzi bat bidalita, helbide elektroniko honetara: <a href="mailto:derechosarso-bbvaam.es@bbvaam.com">derechosarso-bbvaam.es@bbvaam.com</a>  Eta honako helbide honen bidez jarri zaitezke harremanetan Gestorearen Datuen Babesaren Ordezkariarekin: <a href="mailto:dpogrupobbva@bbva.com">dpogrupobbva@bbva.com</a> . Halaber, Datu Pertsonalen erabileran datuen babeseko araudia urratu duela uste baduzu, Datuen Babeseko Espainiako Agentziaren ( <a href="http://www.agpd.es">www.agpd.es</a> ) aurrean aurkeztu dezakezu zure erreklamazioa.
Gestoreak zure datuei emango dien tratamenduari (zenbat denboraz gordeko diren datuak, hartzaileak, lege oinarriei buruzko xehetasun gehiago) buruzko informazio gehiago nahi baduzu sartu <a href="https://bbvaassetmanagement.com/es/politica-de-proteccion-de-datos-personales/">https://bbvaassetmanagement.com/es/politica-de-proteccion-de-datos-personales/</a>	

<b>Zure datu pertsonalen lagapen-hartzaile gisa BBVAren informazioa</b>	
Tratamenduaren arduradun berria	BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. IFK: A-48265169 datuen arduradun gisa, zure Datu Pertsonalak tratatuko ditu.
Lagapenerako legezko oinarria eta xedea	<p>Datuen lagapena Kontratuaren testuinguruan gauzatuko da BBVA, tratamenduaren arduradun gisa, bere izenean zuri zuzendu ahal izateko, posta bidez, helbide elektronikoaren bidez, telefonoz edo beste edozein komunikazio bideren bitartez, IICen dituzun inbertsioei buruzko informazioa emateko.</p> <p>Kontratuaren gauzatzea da legitimazio oinarria eta BBVAk zure aurrean zure aholkatutako zorroa osatzen duten kontratatutako intrumentuei buruzko osaera zehatzari buruzko eta zorroaren balorazioari buruzko informazioa emateko betebeharra hartzen du.</p>
Datu eta iturri kategoria	<p>Gestoreak emango dizkio datu pertsonal horiek BBVAri eta honako honetan datza:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>* Zu partaide zaren IICen posizioa.</li> <li>* IICen posizioei eragin diezaketan eta Gestoreari jakinarazi zaion partaideen erabilgarritasunari eragin diezaiokeen egoeraren bat edo titulartasuna aldaketa.</li> </ul>
Zure eskubideak baliatzea	<p>Datuak eskuratu, zuzendu eta ezeztatzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal izango dituzu, idatzi bat bidalita, helbide elektroniko honetara: <a href="mailto:derechosprotecciondatos@bbva.com">derechosprotecciondatos@bbva.com</a></p> <p>Eta honako helbide honen bidez jarri zaitezke harremanetan BBVAren Datuen Babesaren Ordezkariekin: <a href="mailto:dpogrupobbva@bbva.com">dpogrupobbva@bbva.com</a>. Halaber, datu Pertsonalen erabileran datuen babeseko araudia urratu duela uste baduzu, Datuen Babeseko Espainiako Agentziaren (<a href="http://www.agpd.es">www.agpd.es</a>) aurrean aurkeztu dezakezu zure erreklamazioa.</p>
<p>BBVAk zure datuei emango dien tratamenduari (zenbat denboraz gordeko diren datuak, hartzaileak, legitimazio oinarrien xehetasunak...) buruzko informazio gehiago nahi baduzu "Nire profila" atala webgunearen eremu pribatuan ala BBVA App an kontsulta dezakezu.</p>	

**3 BBVAk datu pertsonalak jakinaraztea balore gordailuzain zentralei, zaintza erakundeei eta 4.1. Baldintza Orokorrean jasotzen diren balore izendunen igorleei.**

Aurreko puntuetan adierazitako datu lagapenez gain, Espainiako balore negoziagarri berriak erosten dituzunean BBVAk balore gordailuzain zentralei, zaintza erakundeei eta 4.1. Baldintza Orokorrean jasotzen diren balore izendun igorleei jakinarazi beharko die

Datu Pertsonalen babesari buruzko araudi aplikagarrian ezarritakoari jarraiki, jarraian azaltzen dizkizugu BBVAren aldetik zure datuen jasango duten tratamenduaren oinarriko informazioa.

<b>Zure datu pertsonalen lagatzaile gisa BBVAren informazioa</b>	
Tratamenduaren arduraduna	BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. IFK: A-48265169
Lagapenerako legitimazio oinarria	Zuk parte hartu duzun kontratuan oinarritzen da lagapenaren egikaritzea eta haren gain oinarritzen dira Gestoreak kudeatzen dituen Espainiakobalore negoziagarrietan egingo dituzun inbertsioak
Datu eta iturri kategoria	Datu Pertsonalak BBVAk emango dizkie balore gordailuzain zentralei, zaintza erakundeei eta 4.1. Baldintza Orokorrean jasotzen diren balore izendunen igorleei, eta arestian aipatutako xedea betetzeko beharrezko datuak izango dira, hau da, identifikazio datuak eta datu ekonomikoak.
Zure eskubideak baliatzea	Datuak eskuratu, zuzendu eta ezeztatzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal izango dituzu, idatzi bat bidalita, helbide elektronikoa honetara: <a href="mailto:derechosprotecciondatos@bbva.com">derechosprotecciondatos@bbva.com</a>  Eta honako helbide honen bidez jarri zaitezke harremanetan BBVAren Datuen Babesaren Ordezkariekin: <a href="mailto:dpogrupobbva@bbva.com">dpogrupobbva@bbva.com</a> . Halaber, datu Pertsonalen erabileran datuen babeseko araudia urratu duela uste baduzu, Datuen Babeseko Espainiako Agentziaren ( <a href="http://www.agpd.es">www.agpd.es</a> ) aurrean aurkeztu dezakezu zure erreklamazioa.
BBVAk zure datuei emango dien tratamenduari (zenbat denboraz gordeko diren datuak, hartzaileak, legitimazio oinarrien xehetasunak...) buruzko informazio gehiago nahi baduzu "Nire profila" atala webgunearen eremu pribatuan ala BBVA App an kontsulta dezakezu.	

## GLOSARIOA

### Akzioa

Sozietate anonimo batek igorritako balore titulua eta bere kapital sozialaren zati proportzional bat ordeztu du, beraz, haren jabea zati proportzional horren jabea izango da. Horri esker zenbait eskubide ekonomiko eta politiko izango ditu, esaterako sozietatearen onuretan parte hartzeko eskubidea dibidenduak kobratuz, akzio berrietara harpidetzeko lehentasuna edo Batzar Nagusietan botoa emateko eskubidea. Inbertitzaileak ezin du akzio inbertsio batean lortuko duen errentagarritasuna aurretiaz ezagutu.

Akzioak kotizatuak izan daitezke edo ez. Lehen kasuan araututako merkatuetan edo balore burtsetan negoziatuko dira eta akzioaren prezioa etorkizunean merkatu prezioak izango duen garapenaren mende egongo da (kotizazioa). Bere aldetik, kotizatzen ez duten akzioak ez dituzte kotizatzen diren akzioek dituzten abantaila berdinak erosteta eta trasmisio aldetik, izan ere inbertitzaileak aurkitu beharko du bere eragiketarako kontraparte bat, eta horrek eragiketa zaildu eta garestitu dezake.

### Lehentasunezko akzioa

Lehentasunezko akzioek eskubide politikoak murriztuta eduki ditzakete (batzarretara joatea eta boto eskubidea). Gutxieneko dibidendu bat, finkoa edo aldakorra, kobratzeko eskubidea atxikita eduki ohi dute, akzio arruntetarako banatutakoez gain. Bermatutako gutxieneko dibidendu hori lehentasunezkoa da (dibidendu arrunta baino lehen kobratzen da) eta pilagarria da (urte batean ordaindu ezin bada, hurrengo bost urteetan ordainduko litzateke). Sozietatearen likidazioa ohiko akzioen likidazioa baino lehen egonez gero kobratzeko lehentasun-ordenan. Lehentasunezko akzioei esleitutako eskubideak sozietatearen estatutu sozialek modula ditzakete.

### Azpiko aktiboa

Ikus finantza-tresna deribatuaren definizioa.

### Berme finantzarioko akordioa

Akordio horren barruan besteak adostutako baldintzen arabera, jatorrizkoak zein eraldatuak, ordainduko ez balu alderdi ez-urratzailean eragingo lukeen galera arriskua estaltzeko ordainketa zehatzak egitea eskatzen dutenak.

### Eremu geografikoa

Karterako inbertsioak egingo den eskualdea edo eskualdeak, adibidez Europa, Estatu Batuak, etab.

### Amortizazioa

Balore baten titularrei inbertitutakoa itzultzea da. Akzioak ere amortizatu badaitezke ere, termino hori ohikoagoa da errenta finkoari dagokionez: jaulkitzaileak inbertitzaileekiko zorra kitatzen du, bai kapitala mugaegunean itzuliz, bai behar baino lehenago. Behar baino lehenagoko amortizazioa guztizkoa edo partziala izango da, eta

hori egiteko aukera jaulkitzaileari edo inbertitzaileari egokitu dakioke, jaulkipenaren baldintzetan ezartzen den moduan.

## **Jaulkipen bateko aseguratzailea**

Jaulkipen batean, erakunde jaulkitzailearekin, komisio osagarri bat kobratzearen truke jendartean ezin jar ditzakeen baloreak eskuratzeko akordiora heldu den erakunde jartzailea. Hala, jaulkitzaileak badaki jaulkipena osatzen duten funtsak osorik erabili ahal izango dituela. Espainian balore-sozietateak, kreditu-erakunde ofizialak eta bankuak eta aurrezki-kutxak aseguratzaile gisa jardun daitezke.

## **Bonu bihurtgarria**

Errenta finkoko produktua (bonua) akzio bihur daitekeena (errenta aldakorreko produktuak). Kasu bereziaren arabera, eta jaulkipen-liburuxkan zehaztutakoaren arabera, bihurteta borondatezkoa izan daiteke, bonu bihurtgarria erosten duten pertsonak erabakitakoa, edo derrigortua.

## **Baliogabetze aurreratua.**

Kontratua aurreikusitako iraungitze-data aurretik baliogabetzea edo etetea da.

## **Trukea edo bihurteta**

Finantza-aktibo bat beste batean bihurtzeko aukera da. Hau da, obligazio bat akzio bihur daiteke, edo bestelako obligazio klase bat.

Trukatzearen eta bihurtzearen arteko aldea da, lehenengo kasuan, akzio bihurtzeko jaulkitzailearen autokarterako akzio zaharrak ematen direla trukean, eta bigarrenean, berriz, akzio berriak.

## **Kartera edo kudeatutako kartera**

Pertsona fisiko edo juridiko batek dauzkan finantza-aktiboen sorta, karteren kudeaketa-inbertsioko zerbitzua jasotzen duena. Osaera inbertsioaren arrisku-profilaren arabera da, eta baimendutako aktiboen arabera.

## **Jaulkipen bateko jartzailea**

Balore-eskaintza publiko batean jaulkitzaileari edo eskaintzaileari zerbitzu bat ematen dion erakundea, baloreak jendartean banatzeko konpromisoan datzana, komisio bat kobratzearen truke.

## **Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionala. CNMV**

Ekonomiako Ministerioaren mendeko erakunde publikoa, zeinari baloreen merkatuen zein haien jardueren gainbegiratzea eta ikuskaritza esleitzen zaion. Legeak, besteak beste, merkatuen gardentasuna zaintzea, prezioak eratzea eta inbertitzaileak behar bezala babesteko betekizuna ematen dio.

## **Kontratazioaren Baldintza Orokorrak**

Aurrez ezarritako klausulak dira, alderdietako batek kontratura gehitzea inposatuta, bere luzapenak axola gabe, ezta beste edozein baldintzak ere; hainbat kontratura gehituak izateko idatzi dira.

## Interes-gatazkak

Bitarteko erakunde batek, igorle batek edo baloreen merkatuetako eragile profesional batek eragiketa jakin batean inbertitzaile jakin baten interesen aurkako (bezeroa, akzioduna...) aurkako asmoak dituenean gertatzen den egoera. Esaterako, interes-gatazka gerta daiteke baloreen eskaintza jendartera ateratzen duen erakundea aseguratzailea ere denean, eskaintzak arrakastarik ez badu, ezari ez diren baloreak bere gain hartu beharko baititu; kasu horretan, gerta liteke erakunde horren merkataritza-lanari lehentasuna ematea bezeroari aholkuak ematearen aurretik. Finantza Tresnen Merkatuen Zuzentzarauak erakundeei behartzen die interes-gatazkak daudenean haiei buruz eta haiek maneiatzeko zehaztuta dituzten politikak jakinaraztera.

## Finantza-kontratua

Antolatutako bigarren mailako merkatuetan negoziatu ez diren kontratuak dira eta ezaugarri desberdinak dituzten bi produktu moten konbinazioaren emaitza da: depositu bat, orokorrean epe motzera, eta beste produktu bat, orokorrean epe luzeago batera. Kreditu erakundeak bezeroen dirua edota baloreak jasotzen ditu haiengatik, eta balore bat edo gehiagok merkaturan duten garapenaren arabera, edo burtsa indize baten garapenaren arabera, balore bat edo gehiago itzultzeko betebeharra hartzen du beregain jasotako zenbateko nagusia itzultzeko konpromisorik gabe. Diru-itzultzea balore kotizatu jakinak ematean, diru-kopuru bat ordaintzean edo bietan datza.

## Balore-kontua

Bitartekariak inbertitzaile baten karterako eragiketa eta saldo guztiak islatzen dituen kontabilitate-idazpenen sorta.

## Kontu globalak

Zaindariaren izenera irekitako kontuak dira. Horietan batera erregistratzen dira banku zaindariko bezero guztien finantza-tresnetako saldoak, halako kontua aukeratu dutenak. Kontuan izan banku zaindariak xehetasun-erregistro bat mantenduko duela bere liburuetan eta, han, omnibus kontu baten partaide diren bezero bakoitzaren identitatea eta posizioak banakatuta eta garbi mantenduko dira.

Omnibus segregazio baten alde egin duten bezeroen bere gain hartzen duten arrisku nagusia da banku zaindariak kaudimenik ez duela aitortzea da, edo banku zaindari gisa dituen betebeharrak urratzea.

## Partaidetza kuotak

Finantza aktiboak edo aurrezki-kutxek igorri ditzaketen balio negoziagarriak. Sortze-funtsen eta erakundearen erreserben proportzio berean eta helmuga berdinetara aplikatu daitezkeen mugarik gabeko iraupena duten diru-ekarpenak



adierazten dituzte. Errenta aldakorreko instrumentuak dira -Bigarren mailako merkatu antolatuan kotizatzen dute- eta ez dute eskubide politikorik. Igorpen-prezioa aurrezki kuxtaren balio ekonomikoarekin koherentea izan behar da.

## Gordailu egituratua

Banku-gordailuak dira (mugaegunean inbertitutako kapitala berreskuratuko duzu), non errentagarritasuna burtsako indize baten edo gehiagoren eboluzioari, akzio-sorta batenari edo beste edozeinenari, lotzen zaien.

## Harpidetza-eskubideak

Kapitala areagotzen denean edo obligazio bihurtgarriak jaulkitzen direnean, akziodunek titulu berriak harpidetzeko eskubidea izaten dute, kapital sozialeko aurretiazko partaidetza ehunekoari eusteko. Horrela, antzinako bazkideen ondarea babesteko eskubidea ematen da, akzio berrien kopurua areagotzearen ondoren bazkide berriak sartzearen barneratze ondorioz eskubide ekonomikoak eta politikoak desagitea saihesten baitu.

Beraz titulu berrietara harpidetzeko eskubidea ematen duten instrumentuak dira. Existentzia epe mugatua dute (kapitalaren epearen luzapenaren arabera edo betebeharrak bihurtgarrien igorlearen arabera)

Harpidetza eskubideen balorea akzioaren baloreari lotuta dago, eta beraz, harpidetzeko eskubidearen prezioa igo edo jaitsiegin daiteke. Baliteke akzioaren likidezia ezak edo balio gabeziak eskubideak burtsan saltzeko zailtasunak eragitea (Harpidetza eskubideak negoziatzeko onesten direnean)

## Eskubide politikoak

Sozietatearen kudeaketari loturiko akziodunek dituzten eskubideak dira, esate baterako Batzar Nagusietan parte hartzeko eta botoa emateko eskubidea.

## Dibidenduak

Akziodunen artean banatzen den mozkin sozialaren parte da. Errebalorizazioarengatik lortutako balizko gainbalioekin batera, akzioen errentagarritasun-iturri nagusia da, eta titularren eskubide ekonomiko nagusia osatzen du. Batzuetan, Batzar Orokorrak egoki iritz dezake dibidendurik ez banatzea.

## Jaulkitzailea

Baloreak edo finantza-tresnak (balore-merkatuetan negoziatzen daitezkeenak) sortu eta zirkulazioan jartzen dituen erakundea.

## Arrisku-kapitaleko erakundeak

Talde inbertsio mota itxiko erakundeak. Higiezin eta finantzazkoak ez diren enpresetan balore burtsaren lehen merkatuan edo Europar Batasunak nahiz OCDEko beste edozein herrialde kidek araututako beste edozein merkatu baliokidetan kotizatzen ez



duten aldi baterako partaidetzak hartzea dute jarduera nagusia. Negozioren garapena ezezaguna denez, arrisku altu bat hartu dezaketen inbertitzaileentzako jarduera da.

Arrisku-kapitaleko erakundeek arrisku-kapitaleko sozietatearen (SCR) edo arrisku-kapitaleko funtsaren (FCR) forma juridikoa har ditzakete.

## Erakunde zubia

Gutziz edo parte batean agintaritza publiko bati dagozkion pertsona juridikoak dira (horien artean egon daitezke ebazpen-agintaritza edo ebazpenaren finantzaketa-mekanismoa) eta ebazpen-agintaritzak kontrolatzen ditu; eta ebazpenaren xede den erakunde batek jaulkitako akzioak edo bestelako kapital-tresnak osorik edo parte batean jasotzeko eta eusteko helburuaz eratzen direnak edo ebazpenaren xede diren erakunde baten edo gehiagoren aktiboak, eskubideak eta pasibo guztiak, erakunde horren edo horien jardunarekin eta egitekoekin jarraitzeko helburuaz.

## Egokitasunaren ebaluazioa

Bankuak emango dizkizun zerbitzuak eta hark hartuko dituen inbertsio-erabakiak zure jakintzaren eta esperientziaren, helburuen eta finantza-helburuaren arabera egokiak diren ala ez erabakitzeko egingo dizkizun galderak.

## Exchange Traded Notes ("ETN")

Azpiko mota ugariren joera kopiatzen duten produktu kotizatuak, esaterako akzio indizeak, errentagarritasun spreads izenekoak, edo indizeen hegakortasuna.

Orokorrean, ETN baten inbertitzeak zor betebeharrak ekarriko du eta igorleak nagusia itzuli beharko du, eta haren balorea indize edo azpikoaren arabera izango da.

## Exchange Traded Commodities ("ETC")

Lehengai baten, lehengai horren prezioaren inguruko etorkizuneko kontratuen edo hainbat lehengai osatutako indizeen jokaera kopiatzen duten produktu kotizatuak. Inbertitzaileek lehengai batek edo haren etorkizuneko kontratuek haren merkatuari esposizioa izan dezakete, fisikoki erosi behar gabe edo eratorritako instrumentuak erabili gabe.

Orokorrean, ETCn inbertitzeak zorpeko betebeharrak asko dakartza, eta igorleak indizearen balorearen garapena eta lehengaiaren azpiko prezioa itzuli behar du iraungitzean.

## Funts klonikoak

Informazio liburuxketan inbertsio politika baliokidearen azalpena edukita, ebazpen maila guztietan erabakiak hartzeko prozesu berbera jarraituz kudeatzen diren inbertsio funtsak. Funts horiek kudeaketa edota depositu komisioek desberdintzen dituzte, eta desberdintasun horiek merkaturatze politikatik edo beste alderdi batzuetatik, esaterako inbertsio bolumenetik, emaitzen edo dibisen banaketa politikatik etorri

daitezke.

## Gordailuen Berme Funtsa

Gordailugileen kalte-ordainetarako sistema, 100.000 euro arteko estaldura eskaintzen du kreditu-erakundeari kaudimen eza aitortzen zaionean eta bere jarduera egiteagatik gordailuan dauzkan finantza-tresnak edo eskudirua ezin itzul ditzakeenean.

## Azpiegitura-funtsak

Garraioetan, komunikazioetan eta bestelako azpiegituretan inbertitzen duten inbertsio-tresnak. Izaera eta ezaugarri anitzeko funtsak izan daitezke eta likidezia txikia izan ohi dute.

## Inbertsio-funtsak

Inbertsio-funtsak nortasun juridikorik gabeko ondare bereziak dira, inbertitzaile askoren ekarpenez osatuak. Funtsaren administrazioaz eta ordezkapenaz arduratuko den sozietate kudeatzailea arduratuko da ekarpen horiek hainbat aktibo eta finantza-tresnatan inbertitzen, zeinen eboluzioak merkatuan zehaztuko dituen inbertitzaileen edo partaideen emaitzak, positiboak edo negatiboak. Inbertsio-unitatea partaidetza da.

## II Cen Kudeatzailea edo Sozietate Kudeatzailea

Helburu sozialtzat inbertsio-funtsen eta -sozietateen kudeaketa eta administrazioa duten elkarte anonimoak. Haien jardueren artean inbertsio politika zehaztea eta burutzea dago.

## Hedge funds – Inbertsio libreko funtsak

Merkatuaren joera gorabehera, errentagarritasunak maximizatzen saiatzen diren inbertsio-funtsak. Talde heterogeneoa da, non oso ezaugarri eta maila ezberdineko funtsak aurkitu daitezkeen, oro har, inbertsio-mugapenik ez dutenak (aktibo motak, inbertsioak dibertsifikatzea eta zorduntzea), ez eta funts tradizionalei inposatzen zaizkien gehieneko komisio-mugak ere; hortaz, libreki erabaki ahal dute zer balore eta tresnatan inbertitzen duten. Horregatik, funts horietako batzuek oso arrisku-maila altua dute.

## Aldi baterako muga

Denbora-tarte horretan zehar inbertitzailea prest dago kapitala inbertituta mantentzeko, bestelako helburuetarako behar izatea aurreikusitako gabe. Inbertsio-produktuetako batzuk denbora-tarte jakin batean mantendu behar dira bere ezaugarriak mesedegarrienek efektu beteak izan ditzaten (adibidez, bermatutako funtsek bermearen berneareb mugaegunera arteko epearekin bat datorren inbertsio-horizontea izan ohi dute, egun horren aurretik itzuliz gero bermea efektiboa ez delako eta galerak sor daitezkeelako).

## Ezgaitzea

Pertsona batek aritzeko duen gaitasuna guztiz edo parte batean murrizteko legezko prozesua, gaixotasun edo desgaitasun iraunkorra, fisikoa edo psikikoa, pairatzeagatik, bere burua gobernatzea galarazten diona.

## Erreferentzia-indizea edo Benchmark

Finantza-aktibo baten edo kartera baten errendimenduari buruzko alderaketak egiteko erabiltzen den erreferentzia da. Normalean kartera baten kudeaketaren efizientzia balioesteko erreferentziatzat hartzen diren indizeak erabili ohi dira.

## Inbertsio kolektiboko erakundeak ("IIC-ak")

Inbertsio funtsak eta sozietateak, ondasunak edo eskubideak hartzeko helburua dutenak, horiek kudeatu eta ondasun, eskubide, balore edo bestelako tresnetan inbertitzeko (finantzarioak ala ez). Produktu hauen ezaugarria inbertitzailearen errendimendua emaitza kolektiboen arabera ezartzen dela da. Inbertsio funtsak, inbertsio sozietateak ez bezala, banatutako ondare gisa eta izaera juridikorik gabe eratzen dira, eta funtsaren jabea ez den erakunde kudeatzaile batek du kudeatu eta ordeztzeko eskumena.

Inbertsio sozietateak sozietate anomino formadun eta izaera irekidun (inbertitzaileak edonoiz sartu eta irten daitezke) IIC bat dira. Kudeaketa sozietatearen administratzaileen edo gestore baten eskuetan egon daiteke. Sozietate anonimo guztietan bezala, akzionistek batzar orokorretan hartzen dute parte, estatutuek ezarritako baldintzekin.

## Inbertsio kolektiboko erakunde ez harmonizatuak

UCITS Zuzentarauari lotuta ez dauden IICak dira (2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauak, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarenak, balore higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuen lege xedapenak, erregelamenduzkoak eta administratiboak koordinatzen dituenak, araututakoak.) Espainian helbideratuak egon daitezke, bai eta Europar Batasuneko beste edozein herrialdean edo hirugarren Estatu batean.

Inbertitzen duten aktibo egokien erregimenen armonizatutako IICen aldean desberdinak izan daitezkeen produktu konplexuak dira. Inbertsioen dibertsifikazio baldintzak, likidatzeko balorea kalkulatzeko maiztasuna, harpidetza eta itzulera erregimen, inbertitzaileari emandako informazioa, gainbegiratze erregimen etab. Produktu horietan inbertitzeak arrisku gehiago ekarri ditzake.

## Inbertsio kolektiboko erakunde egituratuak

Aurretik zehaztutako egunetan algoritmo batek zehaztutako eta finantza aktiboen garapenari lotutako ordainsariak ematen dizkiete inbertitzaileei IIC hauek.

Egitura, ezaugarri eta arrisku mailaren aldetik produktu konplexuak dira eta ulertzen zailak.

## Bankuko birkapitalizazioko tresnak

Halako tresnak kreditu-erakundeek edo inbertsio-zerbitzuetako enpresek jaulkitzen dituzte; hauek, eskumena duten agintarien kitatze edo berregituratze-prozesu bati atxiki behar izanez gero, 11/2015 Legean aurreikusi bezala, besteak beste eragin hauek jaso ahal izango dituzte: (i) zenbateko nominalaren murrizketa, edo interes-tasarena, zerora ere heltzeko moduan; (ii) beste finantza-produktu bat bihurtzea, adibidez akzio arruntak; (iii) kitapenean dagoen finantza-erakundearen aktiboak beste erakunde zubi bati igortzea bere ordainketa-betebeharrak betetzeko edo aktiboak edo negozioak saltzea, modu horretan etorkizuneko ordainketa-betebeharrei aurre egiteko gaitasuna gutxiagotuz, eta (iv) kitatzen ari den edo ordainketak etenda dagoen erakundearen ordainketa-betebeharretan atzeratzea, mugatu gabeko denbora-tarte batean.

## Finantza-tresna

Aldi berean alderdietako batentzat finantza-aktibo bat eta bestearentzat finantza-pasibo bat sortzen duen kontratua. Adibidez, baloreen merkatuen esparruan, errenta finkoko balore bat finantza-tresna bat da; titularrak ordainsari bat jasotzeko eskubidea du besteak inbertsioari eusten dion bitartean, eta jaulki duen erakundeak ordainsari hori titularrari ordaintzeko betebeharra du mugaegunera arte.

## Finantza-tresna apalankatuak

Inbertitzaileek merkatuetarako agerpen handiagoa lortzea ahalbidetzen dutenak dira, inbertsio-kapitala areagotu behar gabe.

Merkatuan duen balioa hasieran ordaindutako dirua baino handiagoa duen posizio bat irekitzeko modua ematen duen finantza-tresna oro produktu apalankatua da. Produktu apalankatu mota bakoitzak modu ezberdin batean funtzionatzen du, baina denek komunean daukaten ezaugarria da finantza-tresna apalankatuen errendimendua, galerak ala mozkinak izan, apalankatze-efektuaren ondorioz biderkatu egiten dela eta hala ezaugarri horrek galerak hasierako inbertsioa baino handiagoak izatea ekar dezake.

Produktu apalankatuen adibide batzuk aldearengatiko kontratuak (CFD), forex-eko eragiketak, aukerak, etab. dira.

## Finantza-tresna eratorriak

Halako finantza-tresnen prezioa ez da arrisku edo epearen moduko parametroen arabera bakarrik aldatzen; beste aktibo batek merkatuen lortzen duen kotizazioaren arabera ere aldatzen da, eta horri azpikoa esaten zaio.

## Likidezia

Inbertsio baten ezaugarria, zeinaren bitartez berehala eskudiru bihur daitekeen. Kotizatutako baloreen kasuan, likidezia-maila onari esker kontratazio bolumen eta maiztasun handiak sortzen dira, eta erosteko eta saltzeko prezioen arteko aldea txikia izan ohi da normalean. Horrek esan nahi du baloreak berehala eros eta sal daitezkeela, kontrapartidarik ezak eragiketaren prezioan eraginik izan gabe.

## Merkatu antolatua

Eskumena duten agintariek baimendutakoa eta araututakoa, non finantza-tresnen salerosketa egiten den. Kontratuak estandarizatuta daude eta konpentsazio-ganbera bat dago.

## Salmenta-eskaintza publikoa

Inbertitzaileei, oro har, zuzenduriko jakinarazpena, inbertsioari buruzko erabaki informatua hartu ahal izan dezaten.

## Baloreak finantzatzeko eragiketak

Halako eragiketetan alderdi batek beste batengandik zenbait balore jasotzen ditu, horiek itzultzeko edo prezio jakin batean berrerosteko konpromisoarekin, egun jakin batean. Berrerosteta eragiketak; baloreen edo lehengaien mailegua eta baloreak edo lehengaiak maileguan hartzea; erosketa-atzerasaltzealdi bereko eragiketa edo salmenta-berrerosteta aldi bereko eragiketa; mailegu eragiketak bermea birjarriz dira ohikoenak.

## Taldekatutako aginduak

Kasu horretan erakunde batek, eta efizientzia-arrazoiengatik, merkatura bezero ezberdinen aginduak taldekatuta bidaltzen ditu.

## Berrerosteta-ituna

Akordio horren bitartez finantza-aktibo baten saltzaileak konpromisoa hartzen du erosleari berriro erosteko, egun batean eta ezarritako prezio batean. Eragiketa bikoitzak ere esaten zaie.

## Zerga-paradisua

Izen horrekin ohikoa baino zerga-presioa baxuagoa ezartzen duten herrialdeak aipatzen dira (eta askotan, baita ere, horren zorrotza ez den finantza-araudia). Hala, nazioarteko kapitaletako bolumen handiak lortzen dituzte.

## Partaidetzak

Inbertsio-funts bateko ondarea zatitzen den alikuotak dira.

## Lehentasunezko partaidetzak.

Errenta finkoko eta errenta aldakorreko ezaugarriak biltzen dituzten finantza-aktiboak dira. Bere titularrek aurrez ezarritako ordainsari ez-metagarri baterako eskubidea dute, jaulkitzailea ez den eta berme-emaile gisa diharduen erakunde batek edo erakunde jaulkitzailea kide den taldeak behar adinako mozkin banagarriak lortzeko baldintzapean. Bere izenaz beste, ez diete batere lehentasunik ematen bere titularrei: izan ere, kredituen prelatzio-ordenan hartzekodun komun eta azpiratu guztien atzean jartzen dira; akzio arrunten aurretik besterik ez daude.

## Pasibo kontingenteak

Bezeroari tresna erostearen kostua baino handiagoko konpromisoa eragiten diona.

## Ondarea

Pertsona baten edo erakunde baten ondasunen osotasunaren balioa, ekonomikoki balioetsi daitekeena. Salmenta edo erosketa berrien arabera areagotu edo murrizten da, edo merkaturan duen balorazioan gertatutako aldaketen arabera, dagokionean.

## Posizio hierarkikoa

Ordena horren arabera kaudimen ezako edo kitapeneko egoeran den erakunde bateko hartzekodun ezberdinei ordaintzen zaie.

## Merkatuko prezioa

Erosleak erositakoaren erabilgarritasuna maximizatzea lortzen duen prezioaren balioa, eta saltzaileak bere mozkina. Hau da, eskaria eta eskaintza bat egitea lortzen duena.

## Jasangarritasunaren hobespenak

Araudiaren jasangarritasun-hobespenen definizioa kontzeptu hauen arabera da:

a) Inbertsio jasangarriak.- baldintza hauek betetzen dituen jarduera ekonomiko batean egindako inbertsioak dira:

- (i) ingurumen- edo gizarte-helburu bat lortzen laguntzen du;
- (ii) kalte nabarmena egiten die beste ingurumen- eta/edo gizarte-helburu batzuei; eta
- (iii) enpresa-onuradunak gobernu onaren jardunbideei jarraitzen die.

b) Ingurugiroarentzat jasangarriak diren inbertsioak. Aurrez azaldutako inbertsio jasangarrien kategoria bat da. Espezialitate nagusia da Europar Batasunak definitutako identifikazio- eta neurketa-irizpide edo -parametro multzo bati jarraitzen diotela ("taxonomia" gisa ezagutzen dena). Ezaugarri hauek betetzen dituzten jarduera ekonomikoetan egindako inbertsioak dira:

- (i) Europar Batasuneko taxonomiak definitutako ingurumenaren helburu batzuk nabarmen lortzen laguntzen dute;
- (ii) ez dute kalte nabarmenik egiten aurrez aipatutako gainerako ingurumen-helburuetan (oro har, inolako ingurumen- edo gizarte-helburutan); eta
- (iii) gutxienezko bermeak betetzen dituen enpresa batek gauzatzen ditu.

c) Kontrako gorabehera nagusiak. Ingurumen- eta/edo gizarte-gaietako eragin negatibo garrantzitsuak dira, jarduera ekonomiko jakin batean inbertsioa egitearen ondorioz sor litekeena. Adibidez: berotegi-efektuko gasak isurtzea, gizonen eta emakumeen arteko soldaten aldea, giza eskubideak urratzea eta abar.

## Produktu konplexuak

Araudiaren arabera, konplexuak dira bere ezaugarriak inbertitzaileen artean oso zabaldua ez dauden ezaugarriak dituzten tresnak, jendearentzat eskura dauden preziorik ez dauzkatenak eta galera errealak edo potentzialak ekar ditzaketenak, hasierako inbertsioaren kostua baino handiagoak. Produktu konplexutzat jotzen dira aukerak, etorkizunekoak, warrant-ak eta bestelako deribatuak, baita bere egituran deribaturen bat daukaten finantza-tresnak ere. Produktu konplexuen berezko

ezaugarriak direla-eta, inbertitzaile gehienek ezin dituzte halako produktuak kontratatu.

## Produktu hibridoak

Halako produktuak, bere izaeragatik, ezin dira errenta finkoko gisa sailkatu, ezta errenta aldakorreko gisa ere. Horregatik dira hibridoak, errenta finkoarekin aldera daitezkeen ezaugarri batzuk eta errenta aldakorraren beste batzuk dituztelako.

Halako produktu gehienak lehentasunezko partaidetzak dira eta obligazio eta bonu bihurtzekoak.

## Azpiko produktua

Normalean kreditu-erakunde batek jaulkitako finantza-tresnak dira, bestelako zor-aktiboek baino errentagarritasun handiagoa ematen dutenak. Hala ere, errentagarritasun handiago hori iraungitzeko edo etorkizunean erakundea kitatzeko kasuan kobratzeko gaitasuna galtzearen truke lortzen da, ordainketa prelatzio-ordenan azpiratua baitago, hartzekodun arruntekiko.

## Jasotzean ordaintzekoa

Partaideak inbertsio-funts batean inbertitutako kapital osoa edo haren zati bat berreskuratzeko eragiketa, zeinaren bitartez partaidetza guztiak sozietate kudeatzaileari saltzen dizkion (liburuxkaren arabera aplikatuko den likidazio-balorearekin).

## Errendimenduak

Inbertsio baten emaitza, lortutako interesen edo dibidenduen batura barne hartzen duena, gehi merkatuko prezioaren errealizazioa edo balio-galera. Balio-galera nabarmena bada, errendimendu negatiboa erregistratu daiteke, eta horrek inbertitzailearentzako galera ekarriko luke.

## Errenta finkoa

Enpresa edo erakunde publiko batek jaulkitako finantza-tresna, erakundeak inbertitzaileengandik jasotzen dituen maileguak ordeztzen dituenak. Errenta finkoak eskubide ekonomikoak ematen ditu, baina ez politikoak; hitzartutako interesak jasotzekoa da eskubide nagusia. Normalean, errenta finkoan, interesak zehatz ezartzen ziren jaulkipen-datatik mugaeguneraino, baina gaur egun beste hainbat aukera ere badago. Normala da interesak aldagarriak izatea eta interes-tasekiko erreferentziatuak izatea, Euriborreko adibidez, edo burtsa-indizeekiko, edo akzio baten edo akzio-saski baten eboluzioarekiko.

## Egituratutako errenta finkoa

Produktu egituratuak finantza tresna bi edo gehiago bateratuz sortzen direnak dira; oro har, gordailuak edo errenta finkoko produktuak eta tresna eratorriak. Errenta finkoaren zatiak mugaegunarekin inbertitutako kapitalaren ehuneko jakin bat babesteko zeregina bete ohi du. Aitzitik, instrumentu eratorria edo eratorriak



kontratatzean azpiko aktibo bat edo batzuen bilakaera (goranzkoa edo beheranzkoa) aprobetxatu nahi da (adibidez, burtsa-indizeak, akzio indibidualak, interes-tasak, lehengaiak, etab.). Eratorrietan hartutako posizioak moldakortasun handia ematen die eta inbertsio-produktu gisa erabiltzeko aukera emateaz gain, arriskua kudeatzeko tresna gisa ere erabiltzeko aukera ematen dute.

## Mendeko errenta finkoa

renta finkoko finantza instrumentuen beste igorpenak baino maila baxuagoa duten finantza instrumentuak, nagusiki haren titularrak kobratzeko lehentasuna duten hartzaile komunak atzean geratzen ditelako (apelazio hurrenkera) igorleak lehiaketa prozedura bat aurkezten duenean. Kreditu erakundeek kasuan, zor hori kapital hibrido instrumentu bat da, izan ere kreditu erakundeek kapital arruntaren ezaugarri batzuk betetzen ditu eta erakundeek berezko baliabideetat hartzen da.

## Errenta finko bihurtgarria

Finantza instrumentua beste batean bilakatzeko aukera dago. Hau da, betebeharrak bat akzio edo bestelako betebeharrak klase bat bihurtzeko. Borondatezko bilakaera eta nahitaezko bilakaeraren artean desberdindu daitezke, azken kasu honetan inbertitzaileak erabakiko du. Bihurtzeko data arte, edukitzaileak aldizkako kupoiak kobratuz jasotzen ditu interesak.

## Errenta aldakorra

Finantza-tresna horietan ez da errentagarritasuna alde aurretik definitzen; hainbat faktoreren arabera da, horien artean nabarmenak dira lortutako etekinak eta erakunde jaulkitzailearen negozio-ikuspegiak. Oro har ez dute lehenetsitako epemugarik. Errenta aldakorreko finantza-tresnarik adierazgarrienak akzioak dira.

## Euskarri iraunkorra

Hirugarren bati zuzenean informazioa bideratzea ahalbidetzen duen tresna, hura berreskuratu eta bildutako informazioan aldaketarik egin gabe hura erreproduzitzea ahalbidetuko duena (paperean, internetez, dvd, usb, disko bidez...).

## Harpidetza

Baloreak eskuratzeko konpromisoa da, lehen mailako merkatuko jaulkipen batean. Terminu hori partaidetzen erosteketei men egiteko ere erabiltzen da, inbertsio-funts batean.

## Titulazioa

Enpresak finantzatzeko metodo bat da, eta hainbat aktibo (etorkizuneko kobratzeko eskubideak barne) hirugarren bati saltzean edo lagatzean oinarritzen da; hirugarren horrek, aldi berean, erosketan finantzatzen du, inbertsiogileen artean banatzen diren baloreak jaulkiz. Espainian, ondorengoan izan ohi da titulazio-metodoa: finantzatua izan nahi duen erakundeak (lagatzaileak) aktiboak titulazio-funts bati saltzen dizkio, zeinek nortasun juridikorik ez duen eta kudeaketa-sozietate batek administratzen duen. Aldi berean, funtsak eskuratutako aktiboak (eta ez erakunde lagatzailearen

kaudimengarritasunak) babesten dituzten balioak ematen ditu. Bonuen titularrek hartzen dute aktiboen eraginaren arriskua.

## **Kudeatutako karteraren eskudiruzko balioa (VEC)**

Karteraren egungo balioa, une jakin batean.

### **Dokumentua sortzea eta sinatzea**

#### **Dokumentuaren sorrera data:**

\_\_\_\_\_ (e)n, 202\_ (e)\_ Ekaina aren \_\_\_\_ (e)an.

#### **Dokumentuaren sinadura:**

Dokumentu hau sinatzean haren edukia onartuko duzu.

Urrutiko kanal baten bidez (gakoarekin) edo digitalean (tablet edo baliokidea erabiliz) sinatzen baduzu, sinadura data eta ordua dokumentu honen amaieran azalduko den aztarna elektronikoa agertuko dira; lehen aipatutako dokumentuaren sorrera datarekin loturarik izan gabe.

Eskuz sinatzen baduzu, sinaduraren data eta lehen aipaturiko dokumentuaren sorreraren data bat etorriko dira.

Hainbat titular badago, dokumentua denek sinatu dutela ulertuko da azken kideak sinatzen duen datan eta orduan.

Bankuak eta Zuk berriaz onartzen duzue kontratuaren edukia, ordezkaritza bitarteko zorroen kudeaketa diskrezionalerako Kontratu Ereduan gauzatu dena, 01/2022 Bertsioan, eta 47 orrialde dituena, horietako bakoitza 1 (e)tik 47 (e)ra zenbatua; horietan guztietan, azpian, ezkerrean, aipatutako Eredua eta Bertsioa ageri dira.